91
ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
2016ko urtarrila



IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ELKARRIZKETA

Karmele Soler:

«Asko kostatu zitzaidan nire burua Zinemira saria jasotzen ikustea»

ERREPORTAJEA

Euskal Zuzenbide Zibil berria: berdintasuna irizpide

EZTABAIDA

Prosaren gaineko gogoeta beti zahar, beti berria





INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Zibersegurtasun ezaren arriskuak

STEFAN SCHUSTER

BA AL ZENEKIEN?

Euskarazko testamentu bat Arabako Durruma herrian

ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
PEDRO URIBARRENA



Axpi

91. zk. • urtarrila • 2016

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:
Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:
Begoña Aierdi, Xabier Amatria, Mikel Ayllon, Ainara Azpiazu, Urtzi Barrenetxea, Aitor Bergara, Miel A. Elustondo, Irene Fernandez, Roberto González de Viñaspre, Inaxio Lopez da Arana, Luma, Maite Orue, Nerea Pikabea, Martin Rezola, Bea Salaberri, Stefan Schuster, Pedro Uribarrena, Izaskun Zuntzunegi

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikuluak berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ISSN: 1576-5563
Legezko Gordailua: BI-1141-93

Egilea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Donostia-San Sebastián 1,
01010 VITORIA-GASTEIZ.
Tel. 945 01 76 37
www.ivap.euskadi.eus

Aurkibidea

2 ***Marrazkia***
AINARA AZPIAZU 'AXPI'

4 ***Pertsonaia***
Gurutze Frades
NEREA PIKABEA

5 ***Elkarrizketa***
Karmele Soler: «Asko kostatu zitzaidan nire burua Zinemira saria jasotzen ikustea»
MIEL A. ELUSTONDO – ZALDI ERO

10 ***Erreportajea***
Euskal Zuzenbide Zibil berria: Berdintasuna irizpide
MAITE ORUE

15 ***Zientzia***
LEDa: XXI. menderako argia
AITOR BERGARA

16 ***Ba al zenekien?***
Aranzadiren irrintziak
INAXIO LOPEZ DE ARANA

18 ***Leihatila***
Monokromoa
BEA SALABERRI

[ARIKETAK]

19 ***Hitzez hitz***
Hiztegi batuan egindako aldaketak
XABIER AMATRIA
BEGOÑA AIERDI
URTZI BARRENETXEA
IRENE FERNANDEZ
IZASKUN ZUNTZUNEGI

21 ***Eztabaida***
Prosaren gaineko gogoeta beti zahar beti berria
MIEL A. ELUSTONDO – ZALDI ERO

26 ***Informazio eta komunikazioaren teknologiak***
Zibersegurtasunik ezaren arriskuak
STEFAN SCHUSTER

29 ***Gramatika***
IZOn itzulpen-irizpideak bateratzen
INAXIO LOPEZ DE ARANA
MARTIN REZOLA

31 ***Leihatila***
2021
MIKEL AYLLON

32 ***Ba al zenekien?***
Euskarazko testamentu bat Arabako Durruma herrian
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
PEDRO URIBARRENA

34 ***Denbora-pasak***
LUMA

Gurutze Frades, triatleta:

«Zerbait bagarela erakusteko, gizonezko bat baino hiru aldiz hobeak izan beharra daukagu»



Nerea Pikabea
Kazetaria

Mugarraren magalean ibiltzen da pedalari eraginez edota lasterka. Durangoko igerilekuan astintzen ditu, berriz, besoak. Bederatzi urte daramatza triatloian, horietatik lau profesional gisa, Basque Teamen laguntzarekin. Iurretakoa da, hogeita hamalau urte ditu, eta Mugarra Triatloi Taldeko kidea da. Distantzia luzeko lasterketetan ibiltzen da. Espainiako txapelduna izan da lau aldiz. Nazioarte mailako triatloi bat irabazi duen lehen emakumea da espainiar estatuan. Munduko triatloi zaharrenetarikoan, Hawaiikoan, parte hartzeko prestatzen ari da.

Talde lana oinarri zuen kirol bat egitetik bakarrik aritzera pasatu zinen.
Neurri batean, adinak bultzatuta hasi nintzen bakarkako kirola egiten. Kasualitatez, lagun baten bitartez. Hogeita bost urtera arte saskibaloian ibili nintzen. Zaila egiten zitzaigun zortzi edo hamar neska elkartzea entrenatzeko eta partida bat jokatzeko. Bakarkako kirolean norberak aukeratzen du noiz joan korrika egitera edo igerilekura.

Zer dauka triatloiak horren gogo biziarekin hartzeko?
Triatloia oso dibertigarria da, batez ere lasterketa herrikoiak. Bakarkako kirol guztietan bezala, kirolariak lehia moduko bat izaten du bere buruarekin. Urtero erronka berri bat jartzen nion neure buruari, eta distantzia luzeagoko lehiaketak egiten nituen.

Ze ezaugarri behar dira triatloian ibiltzeko?
Kirol hori egiteko gogoa behar da, eta egunerokoan ondo pasatzea, zeren gogorrena eguneroko entrenamenduak baitira. Sakrifizio handia eskatzen du, borondate handia jarri behar da eta gauza askori uko egin behar zaio. Garrantzitsua da norberaren ahalmenak eta ahuleziak zein diren jakitea. Nik ez daukat indarrik, baina entrenamenduarekin lantzen dut. Erresistentzia handia daukat distantzia handietarako. Korrika moldatzen naiz egokien.

Nola prestatzen dituzu gorputza eta burua gero lasterketetan hamar orduz dena emanda aritzeko?
Goizez eta arratsaldez, sei bat orduz entrenatzen dut urte guztian. Horrez gain, ondo elikatu eta lo egin behar da, hurrengo egunean berriro ondo entrenatu ahal izateko. Basque Teameko teknikariekin elkarlanean aritzen gara. Denboraldia planifikatzen dudanean zehazten dut ze momentutan landu behar dudan gorputz atal hau edo bestea, pisua hartzea komeni den ala ez, entrenamenduen intentsitatea handitu behar dudan, etab.

Kirola egin bakarrik ez, sosen bila ere zeu ibiltzen zara?
Lasterketa batean lortu nuen emaitzagatik beka bat eman zidan Basque Teamek, eta beka horrekin bizi naiz. Hala ere, babesleak behar ditut nire jarduera aurrera ateratzeko, eta bai, neu ibiltzen naiz bila. Emakumeen kirolerako finantziazioa lortzea zaila da. Lehen pentsatzen nuen nik ez dudala diskriminaziorik izan, baina orain konturatzen naiz, zerbait bagarela erakusteko, gizonezko bat baino hiru aldiz hobeak izan beharra daukagula. Gehiegizkoa da!

Urtero Hawaiin egiten den lasterketan jarrita dituzu begiak. Urrian izango da hori.
Izen handiko lasterketa da, distantzia luzean ari diren munduko 35 triatloi kirolari onenek parte hartzen baitute. Nire helburua 35eko ranking horretan sartzea da, eta horretarako puntuak batzen ari naiz. Apirilean egingo dut beste *ironman* bat; eta sailkatzen banaiz, urrian Hawaiira joango naiz. Han izatea espero dut. ■

Karmele Soler, makillatzailea:

«Asko kostatu zitzaidan nire burua Zinemira saria jasotzen ikustea»

Miel A Elustondo – Zaldi ero
Kazetaria eta argazkilaria

Zinemira saria jaso zuen iragan Donostiako Zinemaldian eta horrek azalera ekarri zuen makillatzailearen lan gordea. Hogeita hamarren bat urte lanbidean eta eskarmentu handia metatua du Karmele Solerrek. Alabaina, labur –oso labur ere–, hiruzpalau esalditan ondu ohi du bere ibilaldi luzea: «Estetika ikasketak egin nituen Donostian, makillaje profesionala Madrilen –Juan Pedro Hernandezekin–, [Jose Luis] Garciren film batean lagundu nion Romana Gonzalez makillatzaile bikainari, eta, azkenik, zinema-makillajea espezialitatea egin nuen Parisen. Ordurako lanean ari nintzen, eta zenbait film egina».



Hainbeste urte jendearen azala lantegi, non ez baitu hasierako motibaziorik gogoan. «Ez dakit zerk jarri ninduen makillatzaile bidean, nahiz eta badakidan txikitandik nahi izan nuela bide hau hartu. Gurasoek esan ere esaten zidaten: «Baina lanbide hori izan ba al da?». Ez dakit nondik etorri zitzaidan gogo hau, ama estetizista nuela besterik. Adar horretatik jo nuen, beraz, makillaje profesionala hautatu nuen arte». Amaya Bontigui Zubiaurre zuen ama, uztailean hila, 1997an Donostiako Hiriaren domina jasoa danborradan emakumeen parte hartzea sustatzen egindako lanagatik. «Eta animaliak babesteko elkartea ere lagundu zuen, eta Parte Zaharreko droga trafikoaren kontra ere gogotik saiatu zen. Estetizista izaki, makillatzaile ere jardun zuen telebistan. Hitz batean, emakume handia gure ama!». Eta, horrela, harixe eskaini nion Zinemira saria.

Aita, berriz, Ernesto Soler *Gallet*, Elx, Valladolid eta Errealeko futbolari ohia du.

Elkarrizketak ez dituzula maite esanez hasi zatzaizkit…

Elkarrizketak maite ez ditudala, edo elkarrizketazale txikia naizela. Asko fribolitate bila datozkit, eta hortik jotzea ez dut batere maite… Makillatzaile lanbidearekin batera dator fribolitatea, antzezle famatu asko dago, izarrak!, eta haien ñirñirrak jendea itsutu egiten du, nonbait. Eta hau, hori eta hura galdezka hasten dira, galbidean: zein den mutilik zangarrena, zein buruarinena, zein neskarik argiena, zein txolinena, zein zeinekin dabilen… Eta ni horretan ez naiz batere sartzen, ezta hurrik eman ere! Gainera, aipu horixe dugu makillatzaileok, alegia, antzezleekin harreman estua dugula, denbora franko ematen dugula haien ondoan, eta, diotenez, haien berri xuxen dugula. Nik, berriz, ihes egiten diot zirimola horri, ihes. Aldiz, zenbait jendek horixe besterik ez du jakin nahi makillatzailearekin hizketan lotzen denean.

Egia da, hala ere, antzezlea makillatzailearen eskuetan ohi dela makillatu behar duen denboran. Barrua asaskatzeko aukera…

Edo ez. Askotan, horixe esan behar izaten diogu dena delako antzezleari: «Orain hitz bihirik ez! Isilik! Mugimendu zirkinik ere ez!». Eta inor berriketan baldin badator, berdin: «Alde! Utik hemen hauetatik!». Makillatzaileok bakea behar dugu gure lanean, antzezlearen aurpegia dugulako langai. Antzezlearekin hitz egin, nahi beste hitz egiten dugu, baina interpretatzen duten pertsonaiaren gainean! Bost ardura norekin dabilen!

Beraiek interpretatzen duten pertsonaiaren gainean hitz egiten duzue, diozunez…

Bai, bai. Tira, telebista plato batean elkarrizketatu aurreko makillatzea baldin bada, arinagoa da lana, arinagoa harremana. Aldiz, film bat errodatzen ari zarenean, harremanean sakontzeko aukera duzu, interpretatzen duten pertsonaiaren gainean asko eta asko hitz egin behar izaten delako. Izan ere, beraiek dakite ongien zertan den pertsonaia, eta makillatzaileoi haiekin aspertu arte hitz egitea dagokigu, delako pertsonaia hobeto ezagutzeko eta antzezleen interpretazioari laguntzeko. Filmaren narrazioa laguntzearekin batera, nire helburua da antzezleen interpretazioan ere laguntzea. Hargatik jakin behar izaten dugu pertsonaiaren psikologia nolako den, zein zaletasun dituen… Antzezleek ematen didaten informaziorik txikiena ere baliagarri zait niri. Eta alderantziz, gure aldetik ere oharrak eta proposamenak haiei egin eziniik ez dugu.

Antzezleak, batetik; zuzendaria, bestetik, tartean da makillatzailea…

Berez, makillatzailea saileko burua da: nik ez dut ilerik orrazten, ile-apaintzaileen lana da hori, baina nire gain dut ileari buruzko erabakia. Makillatzaileak hautatzen du halako filmean nahi duen ile-apaintzailea, ondoan nahi dituen laguntzaileak eta, zenbaitetan, baita efektu berezien ekipoa ere. Baina ez beti, batzuetan produkzio-atalak hautatzen baititu. Agintzea dagokio makillatzaileari,

Emakumezkoa

«Makillatzaile emakumezko asko dago, batez ere kaleko makillatzeari dagokionean. Zineman, berriz, oraintsu gailendu da emakumezkoa. Lehengo makillatzaileetan gizonezkoak ziren gehienak. Lehenengo aldiz sarietarako izendatu ninduteneanere, lau ginen izendatuak, eta neu nintzen emakume bakarra. Zinemaren historian izan diren makillatzaile handienak gizonezkoak izan dira. Estatu mailan, Paca Almenera, Romana Gonzalez... Baina horiek bi makillatzaile dituzu, emakumezko bi, hamaika makillatzaile gizonezkoren artean».

«Makillatzaile lanbidearekin batera dator fribolitatea, izar asko dago eta haien ñirñirrak jendea itsutu egiten du»

Makillatzaileak saltsa mehe

«Telebista kameren aurrean jarri aurretik denak makillatzeko ohitura dago. Izan ere, platoan dauden argien azpian makillatu gabe jarriz gero, zernahi ager liteke: itzal bat hemen, gorritasun bat han, distirak eta gainerakoak! Politikarietan askotan ikusten da hori: "Aitaren eta semearen, zer egin diote, bada!". Zer egin dioten? Ez dutela elkarrizketarako makillatu! Izan ere, argiek azalaren kolorea jaten dute, norberarenak ez diren koloreak sorrarazten dituzte. Horregatik da beharrezko makillajea telebistan. Zineman bestela da: makillajea norberaren begitartera egokitu ohi da, eta plano bakoitzaren araberakoa da. Zineman planorik plano jardun behar du lanean makillatzaileak, saltsa mehe eginez».

eta zuzendariarekin lotura egitea, baina, beti, talde lana da makillatzailearena, taldea gabe hutsaren hurrengoa baita. Bestalde, filmaren zuzendaria bera bezain inportante da, gure kasuan, argazki zuzendaria. Filmaren zuzendariarekin pertsonaien karakterizazioaz hitz egiten den moduan, argazki zuzendariarekin ere hitz egin behar izaten da: ileordeen nolakoari buruz, tularen erabileraz eta, gauza guztien gainetik, argiztapenaz.

Denbora joan zaigu elkarrizketa agindu zenigunetik grabagailuaren aurrean jarri garen eguna arte. Eguzkitik ilargira –eguzkitik eguzkira ere bai–, ari izan zara film baten errodatze lanean…

Beldurgarria izan da! Hamaika ordu dira errodajekoak, baina, Madrilen jardun dugularik, alde batetik bestera joateak hainbeste denbora jan digu. Azkenean, hamahiru ere eman dugu lanean! Ezin eramana izan da. Garai batean bestela zen, bederatzi ordu egin eta aski zen. Baina Madrileko hau eromena izan da. Zenbait egunetan, aukeratu beharrean ikusi dut nire burua: «Zer duzu nahiago, Karmele, afaldu ala lo?». Berriketa gutxi ibili dugu, benetan! Lehenengo orduan joan, eta, hasteko, antzezle guztiak makillatu behar izaten dira. Ordea, egunean zehar, bata joan bestea etorri dabiltza antzezleak, eta etorri berriak ere makillatu beharra dago. Bestalde, filmaren hariaren arabera, antzezleek aldaketak izaten dituzte: batean, egunez ari direla antzezten dute; bestean, gauez ari direla. Makillatzea ere egokitu behar izaten da, nahitaez. Eta, gainera, errodajea zaindu behar izaten da, makillatuak ez dezan distira egin, ez itzalik eragin… Goizeko zazpietan egin duzun makillajeak bere horretan iraun behar du arratsaldeko zazpietan, eta, hori, tarteko esku hartzerik gabe ezinezkoa da. Hein batean, zaintzalana da gurea, aspergarria ere bada.

Aspergarria?

Bai, aspermen hutsa! Zenbait film errodatzea aspermen hutsa zaio makillatzaileari. Aldez aurretiko prestaketak kitzikagarriak izan litezke, hori bai. Batzuetan, astebete irauten dute prestaketok, eta, bestetzuetan, hilabete; Pedro Almodovarren kasuan, adibidez. *Palmeras en la nieve* errodatu baino lehen, hilabete eman genuen frogak egiten, ileorde eta gainerakoak frogatzen, kamera aurreko saioak egiten, efektu bereziak saiatzen… Bestalde, behin baino gehiagotan makillatu behar izan dut antzezlea gaixorik dagoen paperean. Behin, Betiana Blum [Argentinako antzezlea] karakterizatu behar izan nuen, *Tocar el cielo* filmean. Minbizia zuela erakutsi behar nuen, eta, horretarako, Donostiako onkologikora joaten nintzen. Arratsaldeak eman nituen itxaron-gelan, jendeari begira. Inoiz ez nuen argazkirik egin, oso gauza delikatua iruditu baitzitzaidan. Jarri eta ondoko jendearen azalari begiratzen nion, larruaren tonua, makulak… Franko dokumentatu beharra dago makillatzen hasi aurretik! Ezin sinetsizkoa da.

Makillatu aurreko prestaketak gorabehera, zein dira makillatze on baten ezaugarriak?

Lehenik eta behin, trukoa ez ikustea! Aldaketa ikusi behar da, jakina, baina nola egina den erakustera eman gabe. «Halakoren bizarra ez da benetakoa, oraindik orain ikusi dut eta kalean! Baina zer zuen bizar horrek? Tula, ileordea… edo bizarra hazten utzi ote zioten benetan?». Horixe da niri gehien gustatzen

Amaia Soler

«Makillatzaile paregabea dut ahizpa, Amaia. Nik ez beste estilo bat du. Nik zolitasunera jotzen dut, naturalismora, errealismora... Amaiak ez, Amaiak zain artistiko hutsa du! Sortzailea da, oroz gain. Ez du sabairik, etengabe sortzen jarduteko gaitasuna du. Telebistan ari da lanean, eta bata bestearen atzetik egin behar izaten ditu karakterizazioak. Eta, zinez, ikustekoa da haren abiada! Haren makillatze lanak ez dira zoliak, guztiz nabarmenak baizik, baina nola egiten dituen ikusi, zein erraztasun duen... Ikusgarria da nola areagotzen dituen pertsonaien ezaugarriak. Sortzeko gaitasun aparta ez ezik, bolumenak eta koloreak erabiltzeko abildade izugarria du.
Miresgarri zait Amaia,
guztiz».

zaidana, inor makillatu ondoko aldaketa nabarmena izatea, baina trukoaren giltza ez ikustea. Horretan naiz ni. Eta, jakina, filma ikusten dudalarik dena delako trukoaren atzetik joaten zaizkit begiak. Haatik, trukook ez naute filmetik kanpora ateratzen, burutik behatzetara sinesten dut dena. Horretan, ikusle paregabea naute zinegileek. Efektu bereziak ageri direnean ere, askotan begiak hesten ditut. «Baina, Karmele! Ireki begiak, ikusi, eta ikasi!», esan behar izaten diot neure buruari.

Zenbait pertsona errazago da makillatzen beste zenbait baino?

Badira zenbait pertsona makillatu zailagoak, eta badira makillatu nahi izaten ez duten antzezleak ere. Gizonezko asko, adibidez. Zineman, gizonezko asko batere makillatu gabe ageri dira. Eta, beharrezkoa ez bada, zertan makillatzera behartu? Oraindik orain film bat erro-datzen jardun dut, eta gizonezko asko eta asko batere makillatu gabe ari izan dira. Inor makillatu dut, bai, baina neuk halaxe nahi izan nuelako. Jakina, batari bekainak nabarmendu dizkiot, besteari orbanen bat egin… baina hondoko makillajerik ez diot inori egin. Gizonezko askok ez dute makillatu nahi izaten eta, aldiz, emakume askok makillajea nahi du, nahitaez. «Sekuentzia honetan zauden-zaudenean beharko zenuke!», zuk haiei esanagatik ere, alferrik, kosta ahala kosta makilla ditzazun nahi dute, zuri aukerarik eman gabe.

Usteko nuen antzezleak derrigorra zuela makillatzea…

Makillatzea aukera bat da, ez da nahitaezko. Zenbaitetan dagoen-dagoenean nahi dut antzezlearen larruazala. Dena dela, bata duzu makillatzea, eta bestea karakterizatzea, eta hor denetarik duzu. Antzezle batzuk kameleoi hutsak dituzu, han eta hemen ukitzen hasi orduko guztiz aldatzen dira. Beste batzuk, aldiz, ez dago nondik heldu. Zenbaiti, hortzetako protesia jarri, lentillak, larruazalaren ezaugarriak aldatu… eta, hala ere, nekez lortuko duzu aldaketa. Nekez.

Lan zaila da makillatzea?

Kar, kar, kar… Sentiberatasuna behar duzu, artea, baina, azken finean, makillatzea ez da teknika besterik. Eskarmentu kontua ere bada, nahiz eta lanbidean urteak daramatzan zenbait makillatzailek distirarik ez izan lanean, eta, aldiz, hasiberri zenbaitek hasmentatik erakutsi aparteko gaitasuna… Nik, esaterako, hogeita hamarren bat urte daramat honetan, eta egunero ari naiz ikasten. Ongi igartzen diot neure buruari! Garai bateko filmak ikusi eta neure buruari diotsat: «Aitaren eta semearen! Berehala egingo nuke orain horrela!».

Egunero ari omen zara ikasten… Zer ikasi duzu joan den hogeita hamar urte honetan?

Zer ikasi dudan?... Zolitasuna, horixe dut helburu. Nire ustez, lanbideari ekiten diozun garaian filmean agertu nahi izaten duzu: lan egiteko gogoa da, gauzak ongi egiteko nahia, zeure burua erakusteko nahia, zeure lana ikusgarri egitea… Gero, ez duzu horrelakorik nahi, alderantzira nahi duzu, filmean azaldu ez. Are gehiago, agertzea bera akatsa iruditzen zaizu. Horixe da sekretua, makillatzailearen lana albait gutxien ikustea… Gainerakoan, gure lana, nahiz zineman nahiz telebistan, ongi baloratua dago. Ez dugu geure burua gutxietsirik ikusten. Janzkera, dekoratua edo argiztapena bezainbat baloratua dago makillajea. Filmaren ikuslea ez da elementu horietaz jabetzen, baina filmaren sinesgarritasunari ikaragarrizko ekarpena egiten diote. Zergatik ez dira, bada, zenbait film sinesgarri? Elementu horiek ez daudelako behar bezain landuak, edo lortuak.

Hamaika filmetan egin duzu lan, baina ez dakit nahienik ba ote duzun…

Bai, bai… Bada film bat, esaterako –oso film lortua, nire ustez–, non makillatze lana filmaren kalitatearen mailakoa den: Iciar Bollainen *También la lluvia*, alegia.



AZKENIK

«Donostian nagoela, makillatze estudioan lan egiten dut nire ahizpekin batera. Denbora franko egiten dut etxetik kanpora eta, hortaz, familiarekin egon nahi izaten dut hemen naizenean. Iloba bat ere badugu, zazpi urtekoa, eta harexekin nahi izaten dut, ikastolara joan haren bila... Makillajea ikasi izan ez banu, animaliekin lan egingo nukeen, albaitaritza ikasiko nukeen edo antzeko zer edo zer. Kezka handia dut animalien kontrako tratu txarra. Orain ez dut horri buru-belarri ekiterik, baina erretretan sarturik horretan ikusten dut nire burua. Horixe nuke asmoa, behinik behin!».

Errodajea bera ere ikaragarria izan zen; abentura hutsa, batetik, eta dibertsio hutsa ere bai, bestetik. Denetarik izan zuen film hark. Beste bat ere badut oso gustukoa: *Noviembre*. Oso harro nago hartaz, orduantxe izendatu baininduten lehenengo aldiz Goya sarietara, eta, gainera, nire ahizpa Amaiarekin egin bainuen lan bertan. Filma zoragarria izan zen, eta gure lana ere bai. Are gehiago esango dizut, zenbait makillaje-eskolatan ariketatzat daukate. Txera handia diot film hari. *Inconscientes* ere hor dut, Luis Tosarrekin egindakoa, nire lehen lana aktore horrekin, eta lau ere egin ditut harrezkero. Eta hor dator bultzaka *Palmeras en la nieve*, laster estreinatuko dutena. Nik egindakoetan, filmik handiena beharbada, film epikoa, makillatze lan handia duena.

Hein batean, ezkutuko lana da makillatzailearena. Iragan Donostiako Zinemaldian Zinemira saria jaso izanak zure lana ikusgarri egiten lagundu du…

Eta horrexegatik ikusi nituen gorriak! Gorriak eta beltzak ikusi nituen E egunа iritsi zen arte. Ez nuen nire burua hor ikusten. Ez zen nire lekua! Nik sarituak makillatzen ohi ditut, haien atzean nago beti. Ahaleginak egin behar izan nituen nire burua sarituaren lepoan ikusteko! Azkenean, gozatu ere egin nuen, baina asko kostatu zitzaidan nire burua Zinemira saria jasotzen ikustea. ■

Euskal Zuzenbide Zibil berria: Berdintasuna irizpide

Maite Orue
Kazetaria

Ekainaren 25ean, Eusko Legebiltzarrak Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 5/2015 Legeari oniritzia eman ostean, urriaren 3tik indarrean dago Euskal Zuzenbide Zibil berria. Sektoreko profesionalek esku zabalik hartu dute legetestua, ordura arte zegoena eguneratzeko beharrizana egon bazegoela irizten baitzuten. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, esan du legeak helburu bikoitza betetzen duela: batetik, Euskal Zuzenbide tradizionala «eguneratzea eta modernizatzea», eta, bestetik, «uztailaren 1eko 3/1992 Legetik eta azaroaren 26ko 3/1999 Legetik eratorritako ondarea bizirik mantentzea».

Esan beharrik ez dago legea onartu aurreko prozesuak luze jo duela, hainbat sektore juridikok hamarkadetan zehar egindako lanaren fruitua baita. Unibertsitateak, notarioek, erregistratzaileek, abokatuek, Zuzenbidearen Euskal Akademiak… ereindakoaren uzta da Euskal Zuzenbide Zibil berria, eta, Eusko Legebiltzarrak nabarmendu legez, herritarrak ditu hartzaile nagusi, «askatasun zibila erabiliz aukera-sorta handi bat edukiko baitute eskuetan zuzenbide pribatuko beren harremanak antolatzeko».

1999an aldaketa batzuk egin zitzaizkion, eta Gipuzkoara hedatu zen, baina, berez, 1992koa izan zen euskal legegileek osatutako Euskal Foru Zuzenbide Zibilaren lehen testu idatzia, eta, beraz, 23 urtez egon da indarrean. Eusko Legebiltzarreko legelaria izanik, Josu Oses Abandok ondo baino hobeto ezagutzen ditu lege zaharra eta berria, baita azken hori egin aurreko prozesua ere. Haren esanetan, 1992ko eta 1999ko legeak «onetsi ziren une beretik ikusi ahal ziren haien gabeziak». Hori dela eta, haren iritziz, «komenigarria ez ezik, erabat beharrezkoa» ere bazen lege berri bat onestea; «Euskal Zuzenbide Zibilaren fosilizazioa eta petrifikazioa saihesteko», hain zuzen ere.

Euskal Zuzenbide Zibil Berria laburbiltzeko erabil daitekeen kontzeptu bat *berdintasuna* da, aurreko legeak jasotzen zituen arauak ezberdinak baitziren lurralde historiko bakoitzerako. Lege-testu berriak, ordea, ezberdintasunak gainditu eta berdintzera egiten du, Euskal Autonomia Erkidego osorako arauak indarrean jarriz, eta herritar guztiei aukera, eskubide eta betebehar berdinak aitortuz. Hori bai, Euskal Zuzenbide Zibil berriak errespetatu egiten ditu sakon errotuta dauden tokiko lege eta ohiturak: testamentua egiteko Aiaraldean dagoen askatasuna; tronkalitatea; ezkontzako ondasunen araubidea ezkongaiak Bizkaiko Lur lauko, Aramaioko edo Laudioko bizilagunak direnean; edota Gipuzkoako baserriaren oinordetza. «Helburua izan da, beti, bizirik mantentzea eta aprobetxatzea tradiziozko eta ohiturazko zuzenbidearen legatua, baina, aldi berean, begirada jartzea gaurko munduan eta egungo Euskal Herrian, non merkataritzak eta industriak pisu handia daukaten eta zeina ezin den identifikatu duela mende batzuetako landa-gizartearekin, zuzenbide honen jatorrizko formulazioak erantzuten zion gizarte harekin».

Euskal auzotasun zibila

Lege berriaren berrikuntzarik nabarmenena euskal auzotasun zibilaren arauketarena da. Oinordekotzarekin lotutako gaiak irizpide ezberdinen arabera ebatzi



izan dira urrira bitartean, herrialdearen arabera. Alabaina, herritar guztiei euskal auzotasun zibila aitortuz, Araba, Bizkai eta Gipuzkoaren artean egondako aldeak txikitzen ditu lege berriak. «Orain arte ez zegoen tokiko auzotasuna, eta horrek eragozten zuen, berbarako, izatezko bikoteen ondorioak arautzeko euskal auzotasuna ardatz moduan hartzea, halakorik ez zegoelako. Hainbatez, auzotasun administratiboan babestu da izatezko bikoteen araubidea. Premiazkoa zen, hortaz, auzotasun erkide bat izatea Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiontzat».

Senipartearen murrizketa

Beste alde batetik, senipartea edo derrigorrez sendiko ondorengoei testamentuan utzi beharrekoa murriztu egiten du Euskal Zuzenbide Zibil berriak, eta, hortaz, ondasunak banatzerakoan askatasun handiagoa ematen du. Lege berriak ondarearen heren batera mugatu du senipartea, eta beste bi herenak askatasunez erabiltzeko aukera egongo da. Horrez gain, derrigorrez ondorengoei utzi beharrekoan ez dira ezinbestean ondorengo guztiak kontuan hartu beharko, eta, ondorioz, posible izango da baten bat testamentutik kanpo uztea. Halaber, urrira arte ez bezala, aurrekoei zuzendutako seniparterik ez du jasotzen lege berriak.

Tronkalitatea, Aiaraldeako berezitasuna eta Gipuzkoako baserriak

Aukeran, baina tronkalitatea bere hartan mantentzen du urrian indarrean jarritako legeak. Beraz, Foru Zuzenbide Zibila ezartzen den Bizkaiko tokietako bizilagunak behartuta egongo dira herentzian jasotako ondasun higiezinak ondorengoei uztera; betiere, ezkontzerakoan erregimen hori hautatuz gero, zentzu horretan legea ez baita lehen bezain zurruna. Gipuzkoako baserriak herentzian uzteko ohiturari ere eusten dio lege-testuak, eta, horrenbestez, aukera egongo da ondorengo bakar bati emateko. Aiaraldean, azkenik, askatasun osoa izango dute oinordekoak erabakitzerakoan.

Ahalordeak eta izatezko bikoteak

Bestetik, ondasunak zelan banatu erabakitzeko Bizkaian soilik erabil zitekeen ahalordearen figura Arabara eta Gipuzkoara zabaldu du Euskal Zuzenbide Zibil berriak. Horri esker, bi herrialde horietako bizilagunek ere izendatu ahalko dute pertsona zehatz bat ondasunak kudeatzeko. Bestalde, ezkontideen eskubideak babestera ere egiten du legeak, bikotekidea hiltzerakoan familiaren etxebizitzan gelditzeko eskubidea aitortuz. Halaber, izatezko bikoteei ezkondutakoei aitortzen zaizkien eskubide eta betebeharrak ematen dizkie 5/2015 Legeak.

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea

Horrez guztiaz gain, aipatu beharra dago legeak ez duela aterik ixten, eta horretara dator berarekin batera dakarren Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen sorrera. Kontsulta-organoa izango da, eta haren helburua izango da Euskal Zuzenbide Zibilaren garapena sustatzea. «Horretarako, honako hauek egingo ditu: ikertu, ebaluatu, proposamenak eztabaidatu eta aholkularitza egin Eusko Legebiltzarrarentzat eta Eusko Jaurlaritzarentzat, baita arlo horretan lege-berrikuntzak eta aldaketak proposatu ere».

Bistan da aldaketak ez direla gutxi, eta, zentzu horretan, pozik agertu da Eusko Jaurlaritza, uste baitu berritasun esanguratsu eta egokiak daudela; «hala nola, euskal auzotasun zibila aitortzea, arautegia izatezko bikoteei zabaltzea edo Zuzenbide Zibileko Euskal Batzorde bat sortzea». Osesek dioenez, baina, «lege honek izate-arrazoia edukiko du, soilik, baldin eta euskal herritarrek ezagutzen, bere gain hartzen eta erabiltzen badute». Izan ere, haren hitzetan, «denok jabetu behar dugu urriaren 3tik aurrera aukerasorta handiagoa daukagula gure esku: Euskal Zuzenbide Zibilaren aukera berriak, Kode Zibil espainiarraren aukera tradizionalak, eta, azkenik, eremu batzuetako berezitasunak, halakorik dagoen eremuetan».

ELKARRIZKETA



Josu Oses Abando

Legelaria - Legebiltzar kudeaketako zuzendaria

Euskal Zuzenbide Zibil berria oraintsu sartu da indarrean. Baina noiz eta zergatik hasi ziren ekainean onartutako Iegea egiteko Iehen pausoak?

Orain arte 1992ko eta 1999ko legeak egon dira indarrean, baina onetsi ziren une beretik ikusi ziren lege horien gabeziak, alegia, mantentzen zutela lurraldekako sakabanaketa normatiboa («artxipelago juridiko forala» deitua) eta mugatzen zirela ordura arteko instituzioen bilketa hutsa egitera.

Beste autonomia-erkidego batzuen kontrara, EAE egoera atzeratuago batetik abiatzen zen, hedapen desberdineko ordenamenduen justaposizioan oinarritutako egoeratik, alegia.

Jardunaldi batzuk antolatu ziren eta ekarpenak aurkeztu gaiaren inguruan, baina Eusko Legebiltzarrak ez zuen bere gain hartzen bere rol instituzionala, eta arau historikoen jatorri forala gailentzen zen. Gauzak horrela, Legebiltzarrak ponentzia bat eratu zuen 2006an, eta, porrot egin zuten aurreko saioen ondoren, eragile juridiko inplikatu guztiak deitu zituen hartara, beren ikuspuntuak azal zitzaten; nagusiki, unibertsitateak, abokatuak, notarioak eta erregistratzaileak. Legebiltzarraren desegiteak moztu egin zuen material hura lege-testu bihurtu ahal izatea.

Ondoren, zeintzuk izan ziren emandako urratsak?

2013an, ponentzia bat antolatu zen «Euskal Zuzenbide Zibila eguneratzeko». Agerraldi-sorta bat egin ostean, 2013ko azaroaren 28ko osoko bilkuran aho batez onetsi zen ebazpen bat, non Legebiltzarra konprometitu zen lege-proposamen bat prestatzera, euskal auzotasun zibilean oinarrituko zena eta EAEko lurralde osoan aplikagarria izango zena. Ebazpen hori, aho batez onetsia, ibilbide-orri politiko bihurtu zen, aurten 5/2015 Legea bilakatu denera iritsi ahal izateko.

2014ko urtarrilean eta uztailean, agerraldi-egileei eskatu zitzaien testu eta ekimen konkretuak egin zitzatela, eta testu haiek urtebetean batera aztertuak izan ondoren, aurtengo martxoan erregistro parlamentarioan aurkeztu zen Euzko Abertzaleek, Euskal Sozialistek eta Euskal Talde Popularrak sinatutako lege-proposamena. Tramitazio parlamentarioa oso azkarra izan zen, jada leunduta zeudelako aurretiko desadostasun-puntu gehienak, eta ekainaren 25ean Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 5/2015 Legea onetsi zen, gehiengo oso handi batez.

Prozesua luzea izan da. Zer izan da zailena?

Prozesu luzea izan da, bai, baina merezi izan du, eman duen fruituagatik. Beharbada, unerik zailenak izan ziren bazirudienean berriro ere galgatuta geldituko zela testu bateratu bat egiteko asmoa. Hori dela eta, eskertu beharra dago aipatutako sektore profesionalen, eta, noski, ordezkari parlamentarioen jarrera eskuzabala.

Labur-Iabur esanda, zeintzuk dira lege berriak dakartzan aldaketak?

Abiapuntua gehiengoak zuen konbentzimendu bat zen; alegia, Euskal Zuzenbide Zibila bi printzipio oso modernotan oinarritzen dela: batetik, askatasun zibila, herritarrek tresna malgu eta ezagun batzuk eduki zitzaten eskuetan harreman juridiko pribatuak antolatzeko (norbanakoaren eremu pertsonal eta familiarrekoak) eta, bestetik, jabetzaren ikuskera soziala.

Nabarmendu behar dut kontua ez zela euskal herritarrei arrotzak zaizkien artifizio juridiko batzuk asmatzea, baizik eta lehendik zeudenak eraberritzea. Ildo horretatik, legea «harago» ere joan zitekeen, baina euskal legegileek, gure aurretikoek oso bere zuten jarrera errealista bat harturik, erabaki zuten oreka gordetzea errealismo juridikoaren eta ausardia juridikoaren artean. Hautatu behar banitu lege osoaren bi gako nagusi, euskal auzotasun zibilaren finkapena eta oinordetza-erregimenaren eguneraketa aukeratuko nituzke.

Aletu dezagun lege-testu berriaren edukia. Euskal auzotasun zibila aipatu duzu. Zertan datza?

Orain arte, azaldu dudan eremu-mosaiko horretan aplikatzen zen Zuzenbide Forala. Gainerako lurraldean, ordea, zabaleraz eta populazioz handienean, Kode Zibila aplikatzen zen. Horrek eragin zuen ezen 1992tik aurrerako legeek (gogoratu dezagun lege horrek mantendu egin zuela eremu-sakabanaketa) auzotasun administratiboa hartu behar izan baitzuten aplikazio-eremu pertsonal modura, baina kontzeptu hori –baliagarria dena Administrazioarekiko harremanetarako, boto-eskubiderako, eta abar– ez zen baliagarria zuzenbide pribatuaren ikuspunturako (adibidez, Izatezko Bikoteei buruzko 2/2003 Legerako).

Euskal auzotasun zibila euskal herritar guztientzako izendatzaile komun txikiena da, eta horrek dakarrena da Foru Zuzenbide Zibiletik Euskal Zuzenbide

Zibilera jauzi egitea, galarazi gabe auzotasun lokala mantentzea; adibidez, testamentua egiteko askatasuna (Aiara) edo erregimen ekonomikoa eta tronkalitatea (Bizkaiko eremu batzuetan).

Seniparte bakarra ezartzen du lege berriak, ondarearen heren batena, Euskal Autonomia Erkidego osorako, salbuespena Aiarako harana izanik.

Hori dugu, hain justu, legearen berrikuntza sakonenetako bat. Orain arte, Foru Zuzenbide Zibilak ondasuntzaren lau bostenerainoko senipartea diseinatzen zuen, eta Kode Zibilak bi herenerainokoa. Pentsatu zen legegintza-joera berriek ahalbidetu behar zutela hautatzeko aukera handiagoa eskaintzea, gaurko egunean jendeak prestakuntza eta irizpide handiagoa baitauka. Erreforma koherentea izan da ideia horrekin, eta hiru norabide irekitzen ditu II. tituluko II. kapituluan, berriro esan, EAEko lurralde osoan aplikagarriak:

- Senipartedunak ondorengoetara mugatzen dira (gradu-mugarik gabe), bazter utziz aurrekoak.
- Jarauntsiaren herenera mugatzen da nahitaezko gehienezko zenbatekoa.
- Testamentugileak bere ondorengoen artean gutxienez horietako bat hautatu dezake. Eta hori batere arrazoirik adierazi gabe eta Kode Zibileko jaraunsgabetze-arrazoietara jo beharrik gabe. Testamentuan aipatuta agertzen ez dena baztertutzat jotzen da gainerako seme-alaben eta iloben alde (edo horietako bakar baten alde).

Alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak eskubidea du, berriz, «alargun-gozamen» deiturikora: erdia, aurrekoekin lehiatzen bada; edo bi herenak, bestela.

Oinordetzak ere arautzen ditu lege berriak, baina Bizkaiko eta Aiarako berezitasunak gordez. Zer dela eta?

Lurralde-salbuespena Aiarako haranarekin egiten da, hau da, Araia, Amurrio eta Okondoko udalerriekin; eta Mendieta, Erretes Tudela, Santa Koloma eta Soxogutiko auzoekin, azken horiek denak Artziniegako udalerrikoak. Toki horietan, bitxitasun historiko eta paradoxikoki ultramoderno bati eusten zaio: testamentua egiteko erabateko askatasuna, zeinak dakarren askatasun osoz baztertu daitezkeela senipartedunak «gehiagorekin edo gutxiagorekin», 89. artikuluan xedatzen denez, eta nahi den pertsona izendatu daitekeela jaraunsle.

Bestetik, hilburuko testamentua hiru lurralde historikoetara zabaldu da.

Bai, testamentu hori pentsatuta dago heriotza-arriskua dagoenean testamentua egin ahal izateko hiru lekukoren aurrean, notarioak esku hartu gabe. Testamentu-mota horrek erro oso sakonak bota ditu Bizkaiko Forutik aurrera (1526), eta bertan egindako erregulazio zuzenak eta bermeek aholkatu dute lurralde osora hedatzea. Adibide paradigmatiko bat da ikusteko euskal instituzio zibilek zer-nolako gaitasuna duten gaur egunera moldatzeko.

Bizkaiko Iur Iauan, eta Arabako Aramaio eta Laudio udalerrietan hain errotuta dagoen tronkalitatea bizirik mantentzen du legeak.

Tronkalitatea Bizkaiko Zuzenbidearen ezaugarrietako bat da, adarrak izan zituena Nafarroan eta baita Lapurdiko ohituretan ere; eta, hain zuzen, erregulazio nahiko ondua dauka 1992ko Legean. Egia da, hala ere, tronkalitatearen xedapenek oinordetza antolatzerakoan ezartzen dituzten mugapen-obligazioak, nolabait, arlo honetan gehiagora doan askatasunaren kontrakoak direla.

Legeak tronkalitatea mantendu egiten du aplikatzen den eremuan, indarrean dagoen erregulazioa jasoz eta gehiegikeriaren bat edo beste samurtuz. Hala, tronkalitatea aplikatzeak zekarren deuseztasun erabatekoa deuseztasun mugatu bihurtzen da, Jabetza Erregistroan inskribatu ondoko lau urteko epean egikaritu beharrekoa.

Ezkontzako ondasunen araubidea jasotzen du legearen hirugarren tituluak. Zeintzuk dira aldaketak?

Askatasun zibilaren printzipioaren adierazpen gisa, berriro ere, titulu horretan aukera askeko sistema bat ezartzen da, ezkontza egin aurretik zein ondoren. Ezkontideek esanbidezko aukerarekin egin ez baldin badute ordezko irizpide gisa, Kode Zibilaren irabazpidezko sistema aplikatzen da. Eta Bizkaiko foru-lurraldean, ulertuko da ordezkotasun hori foru-komunikazioari buruzko araubideari dagokiola.

Euskal tradizioa ere gordetzen du lege berriak, esate baterako, Gipuzkoako baserrien oinordekotzari dagokionez, ez da hala?

Jakina. Babestu egiten da Gipuzkoako baserriaren oinordetza-preserbazio tradizionala gordetzea, ondazilegiak barruan sartuta, 96.-99. artikuluen arabera.

Kofradia, ermandade eta mutualitateen arauketa ere badakar.

Erakunde horiek gure artean oso finkatuta dagoen elkartze-espirituaren adibide dira. 16. artikuluak errekonozimendu normatiboa ematen die elkarte horiei, Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 21. eta 23. apartatuetan oinarrituta. Euskо Jaurlaritzak arlo honetako erregistro bat sortuko du, non zerrendatuko diren 5/2015 Legearen eremuan sartzen diren sozietate horiek.

Zalantzak argitze aldera, zer geratzen da urriaren 3a baino lehenago egindako testamentuekin?

Data horren aurretik egindako testamentuek zilegitasun osoa mantentzen dute.

Alabaina, askatasun zibil handiagoa erabili nahi izanez gero, gomendatuko nieke guztiei jar daitezela harremanetan abokatu eta notarioekin, informazio zehatza jasotzeko eta, kasua bada, aurretiazko dokumentuak aldatzeko.

Bestetik, agiri publikoak euskara hutsez egin daitezkeela dio lege berriak, murrizketarik gabe.

Hala da, 7. artikuluaren arabera «EAEko hizkuntza ofizialetatik edozeinetan formalizatu ahal izango dira lege honek araututako egintzak eta kontratuak».

Zuzenbide Zibilaren Batzorde aholkuemailea ere eratu da. Zein izango da haren egitekoa?

Funtsezko organo bat da, Eusko Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari aholku emateko sortua. Batzordekideei ez zaie ordainduko, eta batzordearen eginkizuna izango da motore bihurtzea legearen betetze-maila ebaluatzeko, adituen ikerketa-ahaleginak koordinatzeko eta Euskal Zuzenbide Zibilaren garapeneko testuak proposatzeko. Batzordearen osaera eta funtzio-zehaztapena Eusko Jaurlaritzak garatuko ditu dekretu bidez. ■

Urrats historikoa

Eusko Legebiltzarrak eta Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak antolatuta, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko jardunaldiak egin zituzten azaroaren 2an eta 3an Bilbon, eta 240 lagunek parte hartu zuten, gehienak lege hau aplikatu behar duten abokatuak. Josu Oses Eusko Legebiltzarreko legelariak azaldu duenez, hizlari «guztiek adierazi zuten 5/2015 Legea urrats historikoa dela, benetan, Foru Zuzenbide Zibil zahar eta zatitua kontserbatze eta aldatzetik harago joateko. Hitz gutxitan esateko, XXI. mendeko Euskal Zuzenbide Zibilaren sorrera da».

Jardunaldiotan, gainera, «legegintza-politika etengabea eta jarraitua ezartzen da legearen etorkizuneko erreformetarako, bai bertan jada erregulatuta dauden alderdi batzuk garatze aldera, bai oraindik sartu gabe dauden beste puntu batzuk arautze aldera ere». Osesen arabera, «lan hori gizarte zibilaren eta instituzioen arteko lankidetzaren bitartez eraman behar da aurrera», eta, «alde horretatik, Zuzenbide Zibilaren Batzordeak funtsezko paper bat» jokatuko duela deritzo.

Beste alde batetik, informazio lanak jarraipena izango duela aurreratu du Osesek: «Datorren urteko lehen hiruhilabetekoaren barruan jardunaldi tekniko batzuk antolatuko dira hiru hiriburuetan, batez ere, legelariei zuzenduak, formatu mugatuagoa eta espezializatuagoa izango dutenak».

LEDa: XXI. menderako argia

Aitor Bergara
Zientzialaria

Thomas Alva Edisonek asmatu zituenetik, bonbilla goriek ehun urtez eman digute argia XX. mendean zehar. XXI.ean aldiz, LED argiak izango dira protagonistak.

LED argiek igorritako argiaren oinarriak ez du zerikusirik ohiko bonbilla goriekin, ezta errendimendu energetikoari dagokionez ere. Baina, zer dira? Zergatik dira hain ezberdinak eta eraginkorrak?

Bonbilla gorietan, korronte elektrikoak oso mehea eta luzea den wolframiozko harizpia zeharkatzen du. Harritzen bagaitu ere, horren lodiera milimetro baten hamartarra baino meheagoa da, eta, biribilduta dagoelarik, zabalduta bi metroko luzera izan dezake. Harizpiak duen erresistentzia elektrikoa oso handia denez, asko berotzen da, harik eta 2.000 ºC-ko tenperatura lortu arte; ondorioz, suarekin gertatzen den bezala, horren bero dagoen harizpiak argia igortzen du.

Hala ere, bonbilla goriak ez dira batere eraginkorrak; igorritako erradiazio gehiena infragorria baita –bero moduan nabaritzen duguna–, eta ez ikusgaia. Izan ere, bonbilla goriek pizteko behar dugun energiaren % 10a bakarrik aprobetxatzen dugu argia sortzeko; bestea beroan galtzen da.

LED argiak erabat desberdinak dira. Arraroa ematen badu ere, LED argien funtzionamendua fisika kuantikoaren ondorio zuzena da. Argi kuantikoak dira, beraz.

Einsteinek, 1921ean, Nobel saria jaso zuen efektu fotoelektrikoa azaltzeagatik. Bada, nolabait ere, LED argiaren igorpena azaltzen duen oinarria efektu fotoelektrikoaren alderantzizkoa da: efektu fotoelektrikoan metal baten kontra jotzen duen argiak korronte elektrikoa induzitzen badu, LEDak argia sortzen du korronte elektrikoa aplikatzerakoan.

LED izena *Light Emitting Diode*ren laburdura da. Izenak dioenez, osagai nagusia diodo bat da; hau da, bi erdieroaleen arteko lotura, bata bestearen ondoan. Korronte elektrikoak LEDa zeharkatzean, elektroiak erdieroale batetik bestera pasatzen dira, eta bigarren horretan duten energia txikiagoa denez (horrela izateko, erdieroale egokiak aukeratzen dira), argia (fotoiak) igortzen dute energia osoa kontserbatu dadin.

Bonbilla hauek apenas berotzen dira eta oso eraginkorrak dira. Izatez, bonbilla goriek baino hamar aldiz gutxiago kontsumitzen dute eta askoz gehiago irauten dute: ehun aldiz gehiago; hamar urtez jarraian piztuta egon daitezke.

Hala ere, LEDa ez da aurkikuntza berri bat. 60. hamarkadatik ezagutzen da. Lehenengo bonbillak gorriak ziren: gaur egun gure etxeko hainbat aparatu elektronikotan aurki ditzakegun argitxo gorri horiek. Handik gutxira, berdeak lortu ziren, baina beste 30 urte pasatu ziren LED urdinak lortu ahal izateko, Shuji Nakamurak, Hiroshi Amanok eta Isamu Akasakik egindako oinarrizko ikerkuntzari esker. Izatez, aurkikuntza horrek LEDen aplikagarritasuna eraldatu zuen: gorriak, berdeak eta urdinak konbinatuz, argi zuria lor daiteke (gaur egun etxeetan ditugun LED zuriak egiteko ezinbestekoak direnak, alegia). Hori dela eta, hiru ikertzaile japoniar horiek iazko Fisikako Nobel saria jaso zuten.

Oso eraginkorrak izan ez arren, ohiko bonbilla goriak ehun urtez erabili ditugu. Hala ere, energia kontsumoaren ardura handiagotuz joan da azken urteotan. Izatez, lurrean kontsumitzen den energia elektrikoaren % 30a argiztatzeko erabiltzen da. Beraz, ez da harritzekoa arlo honetan egindako edozein aurrerapen eragin handikoa izatea.

Hori dela eta, energia aurreztearen aldeko neurri sendoak hartzen ari da Europa, eta 2012tik aurrera ez dira ohiko bonbilla goriak saltzen. Ehun urtez erabili ondoren, bazen garaia horiek aldatzeko. Nola ez, aukera desberdinak ditugu: batetik, halogenoak (ez dira oso eraginkorrak); bestetik, kontsumo baxuko lanpara fluoreszenteak (nahiko eraginkorrak izan arren, pozoitsua den merkurioa behar dute); eta, azkenik, LED argiak (eraginkorrenak baina garesti samarrak).

Halere, LEDen teknologian arin aldatzen ari dira gauzak, eta, diotenez, datorren hamarkadan LEDen prezioa hamar aldiz jaitsiko da. Gauzak horrela, ziur aski uste baino lehenago, LED argiak XXI. mendeko bonbilla protagonistak izango ditugu. ■

Aranzadiren irrintziak

Inaxio Lopez de Arana
IZOko terminologoa



Nork ez du sekula entzun Aranzadi elkartearen berri? Azken urteotan, batez ere oroimen historikoari buruzko lanei emana ikusi izan dugu. Bada, elkarte horri Telesforo Aranzadi (1860-1945) ikertzaile handiaren omenez jarri zioten izena. Aranzadi gizon politifazetikoa izan zen, eta batik bat Bartzelonako Unibertsitatean egin zuen lan: Farmazia Fakultateko Botanika Deskriptiboko katedraduna eta Antropologiako katedraduna izan zen, besteak beste. Joxemiel Barandiaranekin eta Enrique Eguren irakaslearekin batera, indusketak eta ikerketak egin zituen, Aralar mendilerroko trikuharrietan. Hiruren artean Historiaurrea ikertzeko talde bat eratu zuten, eta, hogei urtean, hondeaketa, indusketa eta ikerketa ugari egin zituzten.

iaiaiaiai

Telesforo Aranzadik euskara mintzatuaren hasierako grabaziogintzan ere jarri zuen bere aletxoa: Léon Azoulay-ri (1900)[1] eta Rudolf Trebitsch-i (1913)[2] gogotik lagundu zien beren proiektuetan. Halako batean, ahotsa jarri beharra ere gertatu zitzaion: Azoulayren 1900eko euskal grabazioetako fonograma batean entzun ditzakegu Telesforo Aranzadik egindako bi irrintzi[3]; hala egiaztatzen du Azoulayren bildumako grabazio-orri batek. Dagoeneko 70 urte joan dira Telesforo Aranzadi hil zenetik, baina oraindik haren ahotsa entzun dezakegu, edo, hobeto esanda, haren bi irrintzi, Azoulayren aurrean egin zituenak.

Parisko 1900eko Erakusketa Unibertsalean, Léon Azoulay antropologo eta sendagileak[4] euskarazko 9 fonograma egin zituen, Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Biltzarra bertan egin zela aprobetxatuta. Biltzarrera joanda, gramofono aurrean arituko ziren euskal hiztunak aurkitu zituen. Esan bezala, Aranzadi izan zen haietako bat. Baina nortzuk izan ziren besteak? Galdera horri erantzuteko, aipa dezagun zein diren Léon Azoulayren euskal grabazioak:

- 85 – Ebanjelioa San Joanen arabera. Hogeigarren kapitulua. Irakurria eta hitzez hitz esana. Zuberera.
- 85bis – Ebanjelioa San Joanen arabera. Hogeigarren kapitulua. Irakurria eta hitzez hitz esana. Zuberera[5].
- 86 – *L'oiseau* (euskaraz, «txoria») kanta. Zuberera.
- 87 – *Maitia non zira* kanta. Zuberera.
- 88 – *Prima eijerra* kanta. Zuberera.
- 89 – Ebanjelioa San Lukasen arabera. Hamabosgarren kapitulua. Seme prodigoaren alegia. Irakurria eta hitzez hitz esana. Gipuzkera.
- 90(1) – *Donostiako hiru damatxo* kanta. Gipuzkera.
- 90(2) – *Donostiako hiru damatxo* kanta. Gipuzkera. Bi irrintzi.
- 92 – *Herriyetan batzubek* bertsoa. Gipuzkera. *Pello Joxepe* kanta. Gipuzkera.

Zoritxarrez, 86. zilindroa desagerturik dago; haren aztarrenik ez dago inon. Ez dago jakiterik txori bati buruzko zer kanta grabatu zuten.

Bost gizon-emakumek jarri zuten ahotsa euskal grabazioetan. Bibliothèque Centrale du Muséum National d'histoire Naturelle delakotik bidali didaten dokumentazioaren arabera, honako hauek izan ziren:

1. Grabazio guztietako atariko frantsesezko aurkezpena egiten duen gizona. Léon Azoulay bera izan daiteke pertsona hori.
2. Zuberoako gizon bat, 1900ean 45 urte inguru zituena. Ez dut datu gehiagorik lortu pertsona horri buruz. Zilindro hauetan hartzen du parte: 85 eta 87.
3. Zuberoako beste gizon bat, 1900ean 40 urte inguru zituena. Gizon hura Aguer Barhendy izan zen, Muskildiko semea (Zuberoa). Irakaslea izan zen, eta Kolonbian ibili zen misiolari. Zilindro hauetan hartzen du parte: 85bis eta 88.
4. Donostiako neska bat, alfabetatua eta lanbidez saltzailea zena; 1900ean 20 bat urte zituen. Ez dut datu gehiagorik lortu pertsona horri buruz. Zilindro hauetan hartzen du parte: 89, 90(1), 90(2) eta 92.
5. Telesforo Aranzadi, 90(2) zilindroko irrintziak egin zituena.

Bitxikeria moduan, esan dezadan Aranzadiren irrintziak «cri de guerre basque» esanda aurkezten dituela Azoulay izan daitekeen horrek. Artikulu honi gaina jartzeko, Aranzadiren jokamoldeari jarraituz, hemen doakizue nire «gerra-oihua»: AIAIAIAIAIAIAIAIAIAIA! ■

[1] Argibide gehiago: http://bit.ly/1yTdcsT
[2] Argibide gehiago: http://eu.wikipedia.org/wiki/Rudolf_Trebitsh
[3] Irrintziak entzuteko: http://bit.ly/1uI6VuO (7. atalean)
[4] Argibide gehiago: http://bit.ly/1MnBCOo

[5] 85bis fonogramaren eduki berbera du, baina ahotsa beste gizon batena da.



Monokromoa

Bea Salaberri

16:30ak aldera ernatu zen Naia, oren bat eskas zuen astea amaitzeko. Ordenagailuko artxiboak altxaturik zituen, e-mail karpetan garbiketa sakona eginik, aterako zenerako dena junta uzteko. Deformazio profesionala zen Naiaren kasuan, batez ere euskara zerbitzuko misiolari lanetan hasi zenetik hartu plega, dena garbi eta behar lekuan uztearen kontua, idatzi nahiz erran oro neurtzearena.

Azken hiruhileko egitasmoaren txostena inprimatu zuen; zuzendariak bezperan jasoa zuen, eta oraino ez zuenez oharrik egin, Naiak suposatu zuen onargarritzat jo zukeela: aitzina aleak zegozkienei bideratzera!

Bulego erdi-lurperatu ilun eta hezean, arnas hartu zuen sakon; gauza pare bat baizik ez zituen egiteko, ospa egin aitzin. Eta gutuna! Txoriburua! Gutuna sinatu eta postara eraman arratsean berean.

Hasperen batean, idazmahaitik orri laburxkaren xerka joan-jin laburra egin zuen inprimagailuraino; pasatzean, desumidifikatzailea itzali zuen eta, jarri gabe, bolaluma hartu. Sinatzekotan zela, urtebetetze-kari zuzendariak oparitua zion Watermanari tinta bukatua baitzitzaion nardatu zen: kaka! Ez zuen, bada, kolorez izenpetuko? Ez zirudikeen serio.

Bulego zurpail monotonoan, aulki grisean jarri, erridau horaildun leihotik soakoa luzaturik etsipen puntta batera lerratu zen. Bat-batean, abisurik gabe, siuxen urratsean, zuzendaria agertu zen, txostena eskutan, zirrimarratua hainbat pasartetan. Beltzez idatzi ohi bazuen, larria bazen, ordukoa kasu, gorriz jartzen zituen iruzkinak.

Behako bat eman diot. Beharko litzateke moldaketa pare bat egin.

–Bai? Oraintxe igortzekotan nintzen… –saiatu zen Naia, izenpetzekotan zen gutuna lerraraziz bistatik urrun.

–Hementxe gehitu beharko zenuke bi punturen aipamena.

–...

–Eta hortxe moldatu: na-na-na, kakotx, na-na-na, bi puntu, na-na-na-na-na. Bi puntu. Kakotx.

Beti bazen gehitzekoa, kentzekoa, mugitzekoa, saiakera ahaleginduenean ere. Hain zuzen ere, ahapeka, zuzendariari horrela deitzen zioten pasabideetan, Kakotx: «Ongi moldatu al zara kakotxekin?» begi kliskaz lagundurik. Kakotxen tonua beti zen monotonoa, giroarekin bat, formulazioak deklaratiboak, irmoak eta aseptikoak, eztabaidarako biderik gabe. Noizbehinka, aposizio bat edo beste erabiliko zuen, goxotasun itxura emateko, nahiz errua eragiteko. Adibidez, orduantxe «Joateko berantetsia zara, ez dea hala?» erran zionean. Ez omen zen bere falta, funtzioak agintzen zuen, karguak, ardurak, eginkizunaren neurriak.

Noizbehinka, Naiari gogoratzen zitzaion «lehengo bizitza» euskalgintzako elkarteetan ari zeneko sasoia: kontsentsu bilaketa etengabea, beti iniziatiban egotea, lubakietan aritzea, libertatea. Oroitzapen lausotan zekusan jada lan demasa, etengabeko hausnarketa, autogestioaren muga, panorama aldakorra, baldintza material eta lan sari kaskarrak, alde higagarriak ororen buru, noizbait marraren honaldera bultzatu zutenak, sinetsirik euskararen alde berdin emankor zitekeela administrazio organo batean. Gero eta gehiagotan oroitzen zen ere Naia garai hura zela zoriontsua, koloretsua, lagunartekoa, askatasunekoa, lan molde duinekoa eta faltan zuen maiz orduko arduraduna, berdez zuzentzen ziona, ongi zirenak inguratuz eta besteak nola hobetu azalduz, menpekotasunik azpimarratu gabe, eraikitzaile, entzule ona. Usu desiratzen zuen berriz arduradun horrekin aritzea, trukeaz damu. Lantoki goibeleko gogoeta zoharrak.

Marraren honaindikoak bazituen abantailak; hipoteka potoloa permititu ahal zizkiotenak, adibidez. Hatsarrean ez zuen hainbesteko aldea nabaritu Naiak, hasiberrian fama txiki modukoa ere zeukan alde, hilabeteko langile irudimentsu eta eraginkorrenarena. Urtebete gabe, utzia zion txano koloretsuarekin lanera etortzeari: korapilo gehiago agerian utziko zituen lehen pausua.

Nagusia amen batean despediturik, iradoki pasarteak zuzendu zituen Naiak, bazterrak arakaturik boligrafo bat atzeman zuen zaku zolan, eta gutuna zirrimarra lasterraz izenpetu. Pozez bete zen.

Gela, zola, jendarte monokromo honetatik asteburutara zihoan jada eta sindikatukoek ontsa kalkulatu bazuten behintzat, ondoko asteak ez ziren konplikatuegiak gertatuko. Presatuz gero, posta zabalik kausituko zuen. Kakotxi zuzendurik igorriko zuen letra. Dimisio gutunak zuzendariei igorri ohi baitira, hartu-agiriekin.

Deliberoaz segur eta sendo, gogoratu zitzaion hartu beharko zukeela lehenbailehen hitzordua berdez azpimarratzen zuenarekin, araiz, polikromiara itzultzea erraz baitziezaiokeen.

Mekatxis, telefonoa!

–Bai?

–Naia? Ez larritu maitea, konfirmatzekoa da oraino. Baliteke lantegian moldaketak gertatzea... Dimisioa?...Goaita pixka bat.

–...

–Naia! Ez duzu igorria? Mintzatuko gara.

–...

–Naia, hipoteka… ■

Ariketak91

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

I. **Aukeratu esaldi egokia Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* kontuan hartuz:**

1. a) Gure mendietako **fauna** desagertuz doa, eta zaintzen ez badugu arazo larria izango dugu urte gutxiren buruan.
   b) Gure mendietako **abeldia** desagertuz doa, eta zaintzen ez badugu arazo larria izango dugu urte gutxiren buruan.

2. a) Bartzelonako Meridiana **etorbidea** bete egin zuten Diadako mobilizazioan: bi milioi parte-hartzaile zenbatu zituzten antolatzaileek.
   b) Bartzelonako Meridiana **abenida** bete egin zuten Diadako mobilizazioan: bi milioi parte-hartzaile zenbatu zituzten antolatzaileek.

3. a) **Aber** behingoz lokartzen naizen, bihar goizean goiz jaiki behar dut eta!
   b) **Ea** behingoz lokartzen naizen, bihar goizean goiz jaiki behar dut eta!

4. a) Bi kultura dira idatzia eta ahozkoa. Gauza batzuetan elkarren oztopo; beste batzuetan, aldiz, elkarren **aberasbide**.
   b) Bi kultura dira idatzia eta ahozkoa. Gauza batzuetan elkarren oztopo; beste batzuetan, aldiz, elkarren **aberaspide**.

5. a) Bakarrik bidaiatzen dutenek uste dute bakarrik bidaiatzea oso esperientzia **aberatsailea** dela arretaz eta zentzuz jokatuz gero.
   b) Bakarrik bidaiatzen dutenek uste dute bakarrik bidaiatzea oso esperientzia **aberasgarria** dela arretaz eta zentzuz jokatuz gero.

6. a) Sasoiko hamargarren garaipena eskuratu zuen Austinen Lewis Hamilton Mercedes etxeko **abiadoreak**.
   b) Sasoiko hamargarren garaipena eskuratu zuen Austinen Lewis Hamilton Mercedes etxeko **pilotuak**.
   c) Sasoiko hamargarren garaipena eskuratu zuen Austinen Lewis Hamilton Mercedes etxeko **hegazkinlariak**.

7. a) Euskal **alfabeto**an sartzen dira c, q, v, w eta y letrak, ohiko euskal hitzak idazteko erabiltzen ez baditugu ere, kanpotar izenak transkribatzeko beharrezkoak baititugu.
   b) Euskal **abeze**an sartzen dira c, q, v, w eta y letrak, ohiko euskal hitzak idazteko erabiltzen ez baditugu ere, kanpotar izenak transkribatzeko beharrezkoak baititugu.

8. a) Minda **abonu** modura erabili izan da betidanik, baina orain argindarra ekoizteko biogasa lortzeko ere erabiltzen dute.
   b) Minda **ongarri** modura erabili izan da betidanik, baina orain argindarra ekoizteko biogasa lortzeko ere erabiltzen dute.

9. a) Dagoeneko 1.800 **abonu** salduak dituzte Kopako lehietarako.
   b) Dagoeneko 1.800 **abonamendu** salduak dituzte Kopako lehietarako.

10. a) **Asentsio-belarra** Asteraceae familiako landare belarkara da, eta sendabelar gisa erabiltzen da digestioari laguntzeko eta urdaileko minaren kontra.
    b) **Absintioa** Asteraceae familiako landare belarkara da, eta sendabelar gisa erabiltzen da digestioari laguntzeko eta urdaileko minaren kontra.

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

2. **"IZOn itzulpen irizpideak bateratzen" artikuluan hobetsitako irizpideen ildotik, aukera ezazu esaldi bakoitzaren itzulpen egokiena:**

1. Sin perjuicio de lo previsto en el apartado anterior, las disposiciones que se dicten en desarrollo de esta ley establecerán, entre otros extremos, los ingresos máximos y mínimos exigidos para cada uno de los diferentes regímenes de protección pública.

a) Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren kaltetan joan gabe, lege hau garatzeko emango diren xedapenek ezarriko dituzte, besteak beste, babes publikoko araubide bakoitzerako gehieneko eta gutxieneko diru-sarrerak.
b) Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa ezertan eragotzi gabe, lege hau garatzeko emango diren xedapenek ezarriko dituzte, besteak beste, babes publikoko araubide bakoitzerako gehieneko eta gutxieneko diru-sarrerak.

2. En el capítulo III se contempla la base del modelo de colaboración interinstitucional ordenada al cumplimiento del derecho de acceso a una vivienda digna y adecuada.

a) III. kapituluan, etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea betetzeko behar den erakundearteko lankidetza ereduaren funtsa ezartzen da.
b) III. kapituluan, etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea betetzeko behar den erakundeen arteko lankidetza ereduaren funtsa ezartzen da.

3. SE AMPLIA EL CRÉDITO PRESUPUESTARIO CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2015 HABILITADO PARA LA ASOCIACIÓN DE COMERCIANTES.

a) HANDITU EGIN DA MERKATARI-ELKARTEARENTZAT 2015EKO EKITALDIAN BIDERATUTAKO AURREKONTU-KREDITUA.
b) HANDITU EGIN DA MERKATARI ELKARTEARENTZAT 2015EKO EKITALDIAN BIDERATUTAKO AURREKONTU KREDITUA.

4. La transmisión de viviendas adquiridas en proceso de ejecución hipotecaria está sujeta al derecho de tanteo y retracto de la Administración pública vasca, de conformidad con los procedimientos establecidos en la presente ley.

a) Hipoteka-exekuzioen prozesuetan eskuratutako etxebizitzen eskualdaketa Euskal Administrazioaren lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidearen barruan sartzen dira, lege honetan ezarritako prozeduren arabera.
b) Hipoteka-exekuzioen prozesuetan eskuratutako etxebizitzen eskualdaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidearen barruan sartzen dira, lege honetan ezarritako prozeduren arabera.

5. Uso adecuado de una vivienda: Es la utilización de la vivienda, acorde a su función social, conforme a la relación entre sus características y sus usuarios o usuarias.

a) Etxebizitza egoki erabiltzea: Etxebizitza erabiltzea bere funtzio sozialari jarraiki, bere ezaugarrien eta erabiltzaileen arteko erlazioaren arabera.
b) Etxebizitza egoki erabiltzea: Etxebizitza erabiltzea bere funtzio sozialari jarraikiz, bere ezaugarrien eta erabiltzaileen arteko erlazioaren arabera.

3. **Lotu sinonimoak:**

zedarritu	itxi
egikaritu	fidatu
suntsitu	mugatu
bermatu	desagertu
gutxietsi	mespretxatu
metatu	bete
eragotzi	pilatu
hetsi	galarazi

4. **Bilatu definizio bakoitzari dagokion hitza:**

1. Zerbait iristen den punturainoko distantzia: _____
2. Zailtasun eta garrantzi berezia agertzen duen aurre egin beharreko arazo edo etorkizuneko eginbeharra: _____
3. Norberaren ilearen ordez, buruan jartzen den ile-multzo artifiziala: _____
4. Zenbaketa egin gabe eta probabilitate-kalkuluetan edota inkestan oinarritu-ta, populazioaren edo beste zerbaiten gutxi gorabeherako balioa kalkulatze-ko egiten den eragiketa: _____
5. Arazo bat konpontzeko edo, hartzen den behin-behineko erabakia: _____
6. Zerbaitek nahiz norbaitek egoera geldia, finkoa, utzirik egiten duen higidura txikia: _____
7. Tenperatura altuen eraginez argitsu bihurtu dena: _____
8. Barruko kezka edo esan beharra kanporatuz, atseden hartu: _____

gori adabaki zirkin ileorde asaskatu helmen zenbatespen erronka

Soluzioak91

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1.

1. a
2. a
3. b
4. a
5. b
6. b, c
7. a
8. b
9. b
10. a

2.

1. b
2. a
3. a
4. b
5. b

3.

zedarritu	→	mugatu
egikaritu	→	bete
suntsitu	→	desagertu
bermatu	→	fidatu
gutxietsi	→	mespretxatu
metatu	→	pilatu
eragotzi	→	galarazi
hetsi	→	itxi

4.

1. Zerbait iristen den punturainoko distantzia: **helmen**
2. Zailtasun eta garrantzi berezia agertzen duen aurre egin beharreko arazo edo etorkizuneko eginbeharra: **erronka**
3. Norberaren ilearen ordez, buruan jartzen den ile-multzo artifiziala: **ileorde**
4. Zenbaketa egin gabe eta probabilitate-kalkuluetan edota inkestan oinarrituta, populazioaren edo beste zerbaiten gutxi gorabeherako balioa kalkulatzeko egiten den eragiketa: **zenbatespen**
5. Arazo bat konpontzeko edo, hartzen den behin-behineko erabakia: **adabaki**
6. Zerbaitek nahiz norbaitek egoera geldia, finkoa, utzirik egiten duen higidura txikia: **zirkin**
7. Tenperatura altuen eraginez argitsu bihurtu dena: **gori**
8. Barruko kezka edo esan beharra kanporatuz, atseden hartu: **asaskatu**

Hiztegi batuan egindako aldaketak

Xabier Amatria, Begoña Aierdi, Urtzi Barrenetxea, Irene Fernandez, Izaskun Zuntzunegi
IVAPeko Administrazio Hizkeraren atala

Euskaltzaindiaren ardurapeko *Hiztegi Batua*k euskal hitzak zuzen eta egoki erabiltzeko irizpideak finkatzen ditu. Bertan biltzen dira orain arte euskararen akademiak zentzu horretan hartutako erabaki zein gomendioak. Proiektuaren lehen idatzaldia 2000an bukatu zen; azkena, 2014an. Bien artean dauden aldeak laburbiltzen saiatuko gara artikulu honetan.

Hiztegi Batua ortografiara bideratuta dago nagusiki; hain zuzen ere, hitzen forma zehazten da bertan, ez hitz bakoitzaren esanahia. Bestela esanda, euskararen batasunerako bidean baztertu edo lehenetsi beharreko forma lexikalak finkatzea du helburu.

Hortaz, hitz bat idazteko forma zuzena zein den jakin nahi izanez gero, bertara jo beharra daukagu hitzen aldaera ezberdinen artean zein erabili behar dugun erabakitzeko. Aipatu beharrekoa da irakurleak hainbat ikur aurkituko dituela hiztegiko zenbait hitzen aldamenean. Beste batzuen artean, *e.* eta *h.* ikurrek garrantzi berezia daukate.

e. ikurrak *erabil* esan nahi du, eta erabili beharreko formaren aurrean agertuko da. Horren aurretik baztertu beharreko formen ageri zaigu * markarekin. Adibidez:

> erakarketa* e. **erakarpen**
>
> Sarrera horrek dioskunez, *erakarpen* hitza erabili behar dugu, eta *erakarketa* forma (* markaduna) baztertu.

h. ikurrak, bere aldetik, hobetsi beharrekoak adierazten ditu. Marka hori daukaten hitzei lehentasuna ematen zaie baliokideak direnen aldean. Adibidez:

> **hamabosteroko** iz. h. **hamaboskari**
>
> Horren arabera, *hamabosteroko* hitza okerra ez bada ere, *hamaboskari* erabiltzea hobesten da euskara baturako.

Hiztegian jasotzen ez diren hitzei dagokienez, Euskaltzaindiak adierazia du ez dituela oraingoz onartzen, baina ezta gaitzesten ere.

Hala ere, euskal hitzen forma finkatu hori ez dugu behin betikoa. Izan ere, Euskaltzaindiaren hiztegigintzako beste egitasmoek *Hiztegi Batua*ren edukian eragina izan dute, eta lanaren idatzaldi bakoitzean eguneratu egin da.

Azken aldaketa esanguratsuena 2012ko *Euskaltzaindiaren Hiztegia*ren ondorioz etorri da. Lan horretan, *Hiztegi Batu*ko lehen idatzaldiko 20.000 hitzak jantzi egin dira, nolabait esatearren; alegia, forma hutsetik harago landu eta zehaztu dira: bakoitzaren definizioa, euskalkizein eremu-marka, gramatika-kategoria, aditz-erregimena eta argi ulertzeko adibideak.

*Euskaltzaindiaren Hiztegia*ren lan-batzordeak *e.* zein *h.* markadun hitz guztiak berraztertu ditu, eta bakoitzerako tratamendua zehaztu du. Horrela bada, *Hiztegi Batu*ko hainbat hitzen formak aldatu egin dira. Aldaketa horiek guztiak iaz argitaratutako idatzaldian ikus daitezke.

Aldaketa esanguratsuenak


Zein dira, bada, aldaketa horiek? Alegia, nola idatzi behar ditugu aldatutako hitzak hemendik aurrera? Ondorengo taulan laburbildu ditugu *Hiztegi Batua*n izandako aldaketa nagusienak.

Orain arteko forma	Erabili beharreko forma
abarrots* e. harrabots	**abarrots** h. **harrabots**
ainitz* e. anitz	**ainitz** h. **anitz**
amankomun* e. komun	Amankomun izond. 'komuna': amankomunean egingo dute lana
biper* e. piper	**biper** h. **piper**
futbolin* e. mahai-futbol edo mahai futbol	**futbolin** h. **mahai-futbol edo mahai futbol**
ihauteri* e. inauteri	**ihauteri** h. **inauteri**
konbidatu **h.** gonbidatu	Konbidatu* e. **gonbidatu**
letxe **h.** legetxe; bezalaxe	letxe* e. **legetxe; bezalaxe**
moropilo **h.** korapilo	moropilo* e. **korapilo**
sifili	**sifilis**

Aipatu beharrekoa da ere hiztegiaren aurreko bertsioetan * marka zeukaten

hainbat forma desagertu egin direla azken idatzaldian. Denborarekin, argi geratu da forma hauek albo batera geratu direla eta haien ordezkoen erabilera arrunta dela.

Hala ere, birgogoratzea ondo datorrelakoan, hauexek dira desagertutako hitzetariko batzuk:



Hiztegitik desagertutako forma	Erabili beharreko forma
abel xehe	abere xehe
arregaketa	ureztapen
artegai	artelan
baga uso	pagauso
barne-luzegoa	habearte
berunkari	iturgin
digestiobide	digestio(-)aparatu,
diruzantza	diruzaintza
erlazkuntza	erle-hazkuntza
errexin	erretxina
garraska	karraska
gaztigar	astigar
goardazibil	guardia zibil
goipe	koipe
hangare	hangar
hortzeskuila	hortzetako eskuila
ihauli	irauli
ikergoa	ikerketa, ikertze
ingurutren	aldiriko tren
iragabide	iraganbide
irakitu	irakin
kalkulamakina	kalkulagailu
kartoifin	kartoi mehe
keramikari	zeramikari
krustaz	oskoldun, krustazeo
lesuin	pezoi
letra xipi	letra xehe, minuskula
litera	ohatze
lurgerri	ekuatore
lurkapa	(lur) geruza
ministergoa	ministerio
nabigari	nabigatzaile
odieria	hoditeria
odolodi	odol(-)hodi
pier	fier
scout	eskaut
solomilo	azpizun
txirio	xirio
unhatu	unatu
zutoiarte	habearte
zuzenkatu	lerrokatu

Prosaren gaineko gogoeta beti zahar beti berria

Miel A Elustondo – Zaldi Ero
Idazlea

Kepa Altonagaren *Back to Leizarraga*ren saiakerak (Pamiela, 2015) oraingoa ez den kezka, galdera nahiz gogoeta berritu du, eta euskal prosaren gaineko eztabaidari haize eman. Bateko lexikoa, besteko purismoa; prosa ahulduta dagoela, indarrik ez duela; erlatibo anaforikoa behar beste ez erabiltzea… Horiek euskal prosari zehaztasuna, indarra eta adierazkortasuna ez ote dioten galarazten, alegia. Euskaraz egiten den prosak giharrik ez ote duen erreportajea osatu zuen *Berria* egunkariak urriaren 11n eta, horrela, eztabaida hauspotu, edo lau haizetara zabaltzen lagundu, bederen.

Zerutik jakina da Axularren *Gero*ren atarikoan bertan irakurgai ditugula euskararen gaitasunari buruzko oharkizunak, eta hor dela beti Joanes Leizarragaren harako *Euskal protestantismoa zertan zen* hura. Askoz berrikiago, gogoan josi dizkigutela Lizardiren noranahikotasun hitzak. Gogoetaren iluna argitu nahirik, Villasanteren *Euskararen auziaz* liburura joko du batek, Seber Altuberen *Erdarakadarik txarrenak* hartara, berriz, besteak, Arestiren atea joko du hirugarrenak, *Hiztegi Tipia*ren sarrerara, hain zuzen, non irakurtzen baitugu: «Zinki eta finki esperatzen dugu (akaso euskara unibertsitateen paret-artean murgilduko denean), etorkizuneko jenerazioek derrigor itzuli beharko dutela "back to Leizarraga"».

Gure egunotan, Altonagak baino lehen Xabier Amurizak ere liburuak osatu ditu, non gaur egun euskaraz gauza guztiak zehaztasunez adierazteko jarriak dizkiogun muga estuak salatu dituen: *Osoa, lehiakorra, nazionala. Euskara batuaren bigarren jaiotza* (Lanku, 2010) eta *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako* (Lanku, 2012). Iñaki Iñurrieta itzultzaileak, bestalde, «back to Leizarraga» aldarrikatzera etorri zen orain dela bi urte, *31 eskutik* blogean. Berrikitan Iñurrietak esan digunez, «Nire itzultzaile jardunean, eguneroko ardura izan dut, beste itzultzaile askok bezala, itzultzen ari nintzen testua ahalik eta irakurgarrien gertatzea irakurriko zuenarentzat, erraz korrituko zuena. Kezka horren ondorio izan ziren "Back to Leizarraga" artikulua eta *31 Eskutik* blogean idatzitako beste zenbait artikulu. Arestiri hartutako hitzak dira titulu horretakoak. Lexikoaz ari zen hura, 1973an *Hiztegi Ttipia*ren sarreran hitzok idatzi zituenean, baina Leizarragak eta beste idazle zahar askok proposatzen zuten sintaxitik ere badugu zer ikasia; bide-seinaleen erabileratik, zehazkiago: irakurtzen duguna irakurri ahala prozesatzeko bidea ematen digun prosa behar dugu, behin eta berriz atzera egin beharrik gabe». «Back to Leizarraga» harekin batera, beste zenbait artikulu ere osatu zituen Iñurrietak blog berean –«Aditza aurreratzeaz: zehar galderak», «Legeen izenez berriro», «Hazi sokratikoa», «Zeinek zein»–, eta beste itzultzaile zaildu batek, Juan Garziak, behin eta berriz eta askotan, eta modu askotara, egiten ohi digu prosaren gaineko gogoeta zorrotza.

Hortaz, zaharra da gogoeta, aldiro-aldiro berritzen duguna, menturaz. Aritu adituengana jo dugu, galdezka.



Xabier Amuriza

Idazlea

Egun, euskal prosa goi-mailako komunikaziorako edota adierazpen zientifikoetarako homologagarria da?

Adierazpen zientifikoetarako dakusdan arazo nagusia lexikoa da. Milaka hitz daude gaizki antolatuak, neure ustez, difusoak, inespresiboak, sarritan ekibokoak. Inon izatekotan, zientzietan behar dira kontzeptu argiak, zehatzak eta bereiziak. Terminologia neologismoekin adierazi nahi badugu: *eficaz-eficacia, efektibo-efektibitate, efiziente-efizientzia* eta abar, ez gaude ez zientzian, ez hizkuntzan.

Lexikotik aparte, prosa zientifikoan, ez dakust arazo handirik, sintaxi kontu batzuk gaindituz gero, neure saiakeretan gainditutzat ematen ditudanak.

Badu baliabiderik horretarako? Zein dira euskal prosaren indarguneak?

Hutsune sintaktiko batzuk betez gero, eta jarrera zurrunegi batzuk gaindituz gero (esaldiaren ordenarekiko aurreiritziak, adibidez), euskarak abantaila dudagabe batzuk eskaintzen ditu, esaldien eta hitzen ordena era efektiboago eta espresiboagoan emateko. Horretan, ezinbesteko da, besteak beste, osorik konponduta edukitzea erlatiboaren esparrua, zeinaren atal bat baizik ez baita zorioneko anaforikoa delakoa. Inguruko hizkuntza handiena baino era efektiboagoa ezinezko da, noski, oraingoz behintzat, baina bai hurbil gaitezke, gauden baino askoz gehiago, hizkuntza handien efektibitatera.


Zein dira ahuleziak?

Aipatu arazoek (sintaxia, erlatiboa, lexikoa, aditza eta abar) oraindik hor diraute, baina konpongarri dira. Lexikoan, adibidez, inguruko hizkuntza handien ondare komuna egina dago, eta ez daukagu egokitzea besterik, irizpide objektibo batzuen arabera.

Nire ustez, euskararen ahulezia nagusia (maila guztietan, hizkera kolokialetik goren mailaraino) esapideak eta argota dira. Hizkuntza baten espresibitate nagusietako bat esapideetan dago, etengabe ateratzen zaigun «erdaraz esaten den bezala» horri dagozkion esapideak. Eta nola ez, argota! Bi arlo horietan nabaritzen da hizkuntza baten indarra eta kreatibitatea. Arlo horietan ez dut ikusten konponbide errazik. Alderantziz, esango nuke efektibitatea eta propiotasuna galtzen ari garela. Galtzen edo baliabideak ordezten, gaztelaniatik, frantsesetik edo beste hizkuntza batzuetatik.

Zure ustez, zein da debate honen edo polemikaren funtsa?

Polemika baino gehiago, eginkizun dagoen zelai handi bat esango nuke. Debatea eta polemika entretenigarri ona izan daitezke, eta euskaldunok hortik badakigu hornitzen sobera ere. Hemen egiteko bat, osakuntza bat, eraikuntza bat dago airean. Eta beharbada, galderarik funtsezkoena da: Nor da edo non dago erreferentzia? Nork beregaindu behar du gidaritza? Nor da autoritatea? Nik dakidala, euskarak daukan autoritate aitortu eta onartu bakarra –neurri batean edo bestean, baina onartua– Euskaltzaindia da. Beharbada, iritsia da garaia (uste dut pasatzen ere ari dela) Euskaltzaindiari euskara errealaren kalitatean eta eboluzioan (sarritan erosioan) inplikazio direktoa eta preferentziala eskatzeko, behin-behinean behintzat. Hala balitz, uste dut behin-behinekotasun hori luzerako litzatekeela. ●



Asier Larrinaga Larrazabal

EiTBko Euskara Zerbitzuaren burua

Egun, euskal prosa goi-mailako komunikaziorako edota adierazpen zientifikoetarako homologagarria da?

Etsigarria da konturatzea euskaraz heltzen zaizkigun testuen portzentaje handi bat guztiz antikomunikatiboak direla eta, pentsamendu-maila batetik gorako testuetan, arazoa komunikazio-zailtasunetik ulertezintasunera pasatzen dela. Alde horretatik, badu zentzua euskal prosari buruz gogoeta egiteak. Nolanahi ere den, nire premisa da euskarazko prosa baliagarria dela goi-mailako komunikaziorako, eta homologagarria dela adierazpen zientifikorako; euskaraz zenbat doktorego-tesi egiten diren ikustea besterik ez dago. Tesi-ekoizpen horrek esan nahi du euskaraz behar diren hizkuntza-baliabideak baditugula, eta baditugula, halaber, hizkuntza-baliabide horiek erabiltzeko gai diren adituak eta jakitunak.

Badu baliabiderik horretarako? Zein dira euskal prosaren indarguneak?

Hain zuzen, euskal prosaren indargune nagusia da badirela pertsonak –sasoi batean amets zitekeen baino askoz gehiago– euren jakintza-alorreko goi-mailako ezagutza dutenak eta gai direnak euskaraz aritzeko euren alorreko goi-mailako komunikazioan.

Zein dira ahuleziak?
Euskal prosaren ahuleziak, beraz, ez dira euskararen edo euskaldunen gaitasunik eza, beste hauek baizik, nire iritziz.

a) Itzulpen-politikarik eza. Den-dena itzultzen hasi gara, premiak eta lehentasunak zehaztu barik. Beharbada, dena behar dugu euskaraz baina, behintzat, epe batzuk zehaztu beharko lirateke: literatura unibertsalarekin segitu behar dugu?, zientzia-obrei heldu behar zaie?, filosofiak noiz izan beharko luke bere unea?, ikus-entzunezkoetan ez litzateke Filmografia Unibertsala edo antzeko ekimen bat abiarazi behar? Epeak finkatzeaz gainera, unean uneko eremuko terminologia zehaztea pentsatu beharko litzateke. Zelan heldu Kanten itzulpenari, itzultzaileak terminologia ebazten joan behar badu itzuli ahala? Egun, Eusko Jaurlaritzaren Terminologia Batzordeak ez darabil oso irizpide garbia eginkizunak zehazteko. Itzultzaileak ere hartu behar dira aintzat. Gaian jantzita ez dagoenak nekez itzul dezake testu zientifiko bat, edo filosofiko bat, edo legal bat... Itzulpen-politikak berariazko prestakuntza jaso beharko luke.

b) Finkapen-maila urria. Euskarak ez dauka behar bezain tradizio luzea eta ugaria hainbat arlotan eta, horrela, nekez sor daitezke esamolde eta adierazpide finkatuak, erreferentzia ezagunak, testugileari testura automatikoki datozkionak eta, aldi berean, irakurleak ikusiaz bat deskodetzen dituenak ia hitzak prozesatzen hasi beharrik gabe. Horrelako baliabiderik ezean, oso zaila da hartzailearekin erraz konektatzen duten testuak sortzea.

Zure ustez, zein da debate honen edo polemikaren funtsa?
Ahulezia bi aztertu ditut, eta iruditzen zait bietan egin daitekeela lan. Dena dela, susmoa dut debatea ez dela hain erraz amaituko, debatearen eragileak beste batzuk dira eta.

a) Bizantinismoa. Osasungarri den baino debate gehiago dago euskarazko prosari buruz; asko, antzuak. Euskarazko prosaren gaineko kezka dugunok inozoak ginateke segundo erdia galduko bagenu Jesus Rubioren euskara prepositiboaz eztabaidan, edo heziketa-prozesu osoa –unibertsitatea barne– gaztelaniaz egin duten euskaldunek deskubritu nahi diguten euskara autentikoari buruz eztabaidatzeaz. Edo euskaraz mintzagai-galdegai jokoa ukatzen dutenekin eztabaidatzeaz. Edo eredu estandar bat zer den ulertzen (bide) ez dutenekin eztabaidatzeaz. Edo *Hiztegi Batua* euskara batuaren posibilitate bakartzat dutenekin eztabaidatzeaz. Eta abar.

b) Estremismoa. Oso lotuta dago aurreko paragrafoko azken puntuarekin. Euskaldunon artean, hizkuntzarekin loturiko kontuetan, oso errotuta dago gauzak muturreraino eramateko joera, komunikazioaren beharrak aintzat hartu barik. Euskaltzaindiak «garapen iraunkorra» «bedeinkatu» duela? Ba, orduan, 'iraunkor' ez den guztia baztertuko dugu 'sostenible' esateko. Galdetzaileetan oinarrituriko erlatiboak artifizialak direla hizketa arruntean? Ba, orduan, hizketa arruntetik zein Kanten itzulpenetatik ezabatuko ditugu. Berriro ere, errealitatearekin aurrez aurre topo egin arte.

c) Zurruntasuna. Era batean, aurreko bien adar bat da. Zentzuzko debate asko mahaigaineratzen dira euskarazko prosari buruz, baina debateak ekar ditzakeen onurez arduratu beharrean, debateaz beraz arduratzen gara. Debate onuragarria izan daiteke hizkera soilarena (*plain English* delakoaren ildotik datorrena). Niretzat badu zentzua goreneko mailako komunikazioan ere hizkera soilean pentsatzeak, eta komunikazioa errazteko estrategiak aintzat hartzeak. Debate onuragarria izan daiteke gaztelaniaren eraginarena. Badu zentzua zalantzan jartzeak gaztelaniak eskaintzen dizkigun testu-egikera puztuak eta pedanteak. ●



Kepa Altonaga
Biologo eta unibertsitate irakasle


Egun, euskal prosa goi-mailako komunikaziorako edota adierazpen zientifikoetarako homologagarria da?
Arrazoiak arrazoi, hazi egin gara edota hezi egin gaituzte, zoritxarrez, euskal literatura klasikoari bizkarra eman zion mende beteko tradizio batean, mende bat baino gehiago kontsideratu barik idazle zaharrek euskarazko prosari eskaini era askotako baliabideak; areago, ehun urtez altxor hori abandonatuta eta estigmatizatuta, tabu bihurtuta. Tradizio klasikoarekin haustea ez da debaldekoa suertatu, eta ondorioz hizkuntza kamustu egin zaigu eta gure prosa pobretu, depauperatu. Izan ere, mende osoa igaro dugu korronte nagusitik aparte mantendu guran, delako *standard average European* hartatik urrundu guran.

Badu baliabiderik horretarako? Zein dira euskal prosaren indarguneak?
Hizkuntza kamustea da bat, baina gainera gure sentsibilitatea bera ere kamustu da, sorgortu egin da, soraiotu, garu-

na bera formateatu zaigu eredu horren arabera, eta gaur-gaurkoz ez gara kapaz ia, ohartzeko noraino eskas geratu zaigun hizkuntza. Soilik atzerriko tituluak euskaratu nahi ditugunean konturatzen gara-edo zein neurritaraino argaldu zaigun hizkuntza, orduan datoz nekeak eta negar-lanturuak. Edo, alderantziz, konturatzen gara euskarazko libururen baten erdarazko bertsioa irakurtzean eta igartzean erdara horretan «hazi» egin dela bat-batean. Nire begietarako argi dago, tradizio klasikoaren baliabideak falta ditugu, alboko hizkuntzetan usu erabiltzen direnak.

Zein dira ahuleziak?
Bada garaia: aurre egin behar diogu mende beteko tradizio menderatzaile horri, klasikoen ukazio aktibo eta zoro horri. Alegia, inolako eragozpenik gabe inkorporatu beharko genituzke gure klasikoek zeinek bere aldetik –baina modu bateratuan– garatu zituzten baliabide lexiko eta sintaktikoak. Tresneria hori ezinbestekoa dugu gure armairuetan, baitezpadakoa da edozer idazten abiatu baino lehenago; bestela, euskal idazlea beti egongo da inferioritate-egoeran, desabantailan letrak elkarregaz juntatzen hasi orduko.

Zure ustez, zein da debate honen edo polemikaren funtsa?
Sasoia dugu azken mende bete honetako tradizioak inplantatu digun nagitasun intelektuala astintzeko. Klasikoen ostrazismoak, haien egiteko modua ahazteak, apatia konplaziente batean –autokonplazientean– murgildu zuen gure prosa. Lozorro horretatik esnatzeko ordua dugu: nagiak bota eta idazle klasikoek erakutsi bideari ekin, berandu baino lehen. ●



Manu Arrasate
Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala IZO

Egun, euskal prosa goi-mailako komunikaziorako edota adierazpen zientifikoetarako homologagarria da?
Goreneko prosa ari gara epaitzen, baina eguneroko prosa txikia da (ipuinak, eskola-liburuak…) prosa handiaren oinarri. Hiztunak berak txikitatik kargatzen edo deskargatzen du energiaz hitz hau edo beste esamolde hori eguneroko jardunean…. Nahierara (?). Uneoro egiten duen hautu bakoitzean ari da hiztuna euskara erabakitzen (edo, bestela, alboratzen). Deskargatu genituen biraoak, esaera zaharrak, txisteak…. Indargetzen ari gara esamoldeak *atodaletxe*… Zaindu dezagun hiztunaren bizi guztia, jaiotzen denetik zahartzen den arte, txikitako horixe bera izanen baita euskararen goimailako prosaren patua. Alegia, euskal lurra garbi izan behar dugu, ondo jorratuta, simaurra zabalduta. Hor daude haziak, zuhaixkak eta arbola ederrak… eta arbola horietan ontzen dira eta onduko dira euskal fruiturik goxoenak.

Badu baliabiderik horretarako? Zein dira euskal prosaren indarguneak?
Euskarak berak daukan potentziala infinitua da, eta ez du beste mugarik hiztunok jarritakoa baizik. Eskaini… dena eskaintzen digu, baina hartu… guk ematen diogun indar hori baino ez du hartzen. Euskaraz lan egiteko eskuragarri ditugun baliabide linguistikoak asko landu, finkatu eta estandarizatu dira. Duela 30 urte genituen hizkuntza-baliabideak eta oraingoak konparatuta… alde ederra! Terminologia, ereduak, inprimakiak, erreferentziak, izendegiak, toponimia… Eta, batez ere, corpusa! Itzulpen-arloan, gainera, ordenagailuak, itzulpen-memoriak, itzulpen automatikoak, zuzentzaileak… eta gure lagun-mina, jakina… Internet! Ondo baitakigu ez dakigula arlo guztiez dena. Euskararekiko atxikimendua eta ilusioa ere jarri behar dugu indar modura, sentimendu horrek ekarri gaituelako, neurri handi batean, honaino.

Zein dira ahuleziak?
Indargune bakoitzak badu bere ifrentzua. Hizkuntza zabaldu eta hedatu den heinean, euskararen maila eta arlo batzuetako aberastasuna ahuldu egin dira neurri batean. Espresibitatean igartzen da hori asko (umetan eta gaztetan, esaterako). Egoerarik mingarriena da gure baliabideak galtzen utzi, eta erdarazkoak hartzen ditugunean zuzenean haien ordezko. Dakigunez, esparru askotan, oraindik ere, erdara hutsa erabiltzen da… edo, euskara erabiltzekotan, dekoraziorako baino ez da izaten usu. Hori da ahulezia, eta hutsune horiek bete nahian sortzen da itzulpengintza! Itzulpena kultura-gorputz baten osagarria da, lagungarria, baina ezin da inola ere komunitate-jardun baten ordezkoa izan. Kultura oso bat ezin da itzuli. Itzulpengintza ez da behin betiko konponbidea; osagarria izan behar du, lagungarria.

Zure ustez, zein da debate honen edo polemikaren funtsa?
Bai; bagara polemikazaleak, baina, estandarizazioa lortu nahi badugu, adostasun-bideak urratzen joan beharko dugu gero eta gehiago. Ideia eta proposamen guztiak norabide berean joan behar dira. Eusko Jaurlaritzako itzulpen-zerbitzuan uste dut denok argi daukagula adostasuna dela bidea, eta Administrazio osora

zabaldu nahi genuke asmo hori. Hasi gara pausotxoak ematen, esaterako, idazketa elebiduna sustatzen. Alegia, teknikariak eta itzultzaileak elkarrekin testuak eraikitzen. Hasi gara itzultzaileak, legelariak, epaileak eta zuzenbide-irakasleak legeak elkarlanean itzultzen. Hastapenak dira, bide luze baten abiaburu. ●





Bego Montorio
Itzultzaile eta irakasle

Egun, euskal prosa goi-mailako komunikaziorako edota adierazpen zientifikoetarako homologagarria da?

Itzultzailea naizenez, eta ez hizkuntzalaria, beste modu batera sortzen zaizkit niri galdera horiek: gai gara egungo euskaldunak goi-mailako komunikazioa euskaraz sortzeko?, gai dira euskal zientzialariak euren produkzio zientifikoa euskaraz adierazteko? Atzera begiratu dut, unibertsitateko ikaslea nintzen garaietara, eta begi bistakoa da egindako aurrerapena; orduan, euskaraz, produkzio zientifikorik apenas genuen, kontzeptu oinarrizkoenen izendapena ere zalantzazkoa genuen... Gaur egungo egoera guztiz bestelakoa da: euskaraz idatzitako doktorego-tesiak ez dira jada salbuespenak, badira beste hizkuntza batzuetara itzultzen diren ikerlanak, sortu diren hizkuntza gorabehera interesgarriak direlako... Neurri batean behintzat, erdietsi da homologagarritasun hori. Hizkuntzen erabiltzailea naizen aldetik lorpena murritzagoa da. Nik ez bezala, alabek euskaraz bereganatu dituzte matematika, fisika, biologia eta abarren oinarriak, eta hizkuntza ez zaie oztopo gertatu.

Badu baliabiderik horretarako? Zein dira euskal prosaren indarguneak?

Alor bateko adituek normalean euren artean euskaraz jardungo balute, ez al legoke adostasun handiagoa, hiztegian behintzat? Benetan bilatzen al da, zenbait prosa zientifikotan, beste euskaldun batzuekin komunikatzea, behar besteko zehaztasun eta ñabardurekin? Zalantzak, susmoak. Eta adituen eta ez adituen arteko komunikazioan, gauza gara euskaraz moldatzeko? Inguruko erdara nagusian bezain ondo/txarto, ala ez? Praktikak narama, horretan ere, galdera egitera; dibulgazio-testu bat euskaratzerakoan, zer ereduri jarraitu behar diot?, zertara dago ohituta era horretako testu baten euskal hartzailea? Ez da erraza izaten erantzuna topatzea.

Zein dira ahuleziak?

Beste hizkuntzekiko harremanean gara euskaldun, eta harreman horien nolakotasunak badu eragina gure jardunean, sortzen dugun prosa horretan. Ezinbestekoa dugu beste hizkuntzetan sortutako lexikoa geureganatzea –maileguz, egokitzapenez, kalkoz…–, ezinbestekoa bestelako kulturetan sortutako gogoetak gure hausnarketetan txertatzea, haien zehaztasun eta ñabardura guztiak euskaraz ematen ikastea. Eta horretan zeregin eta garrantzi handia du itzulpenak. Garrantzitsua da zelan itzultzen den, jakina, baina garrantzitsua da, halaber, zer itzultzen den, zer hizkuntzatatik, zergatik, zertarako…?

Euskaraz egunero idazten den horretatik, zenbat da itzulpena? Zenbat da gaztelaniaz (euskaldun gehienon kasuan) pentsatu, eztabaidatu, eta gero euskarara ekarritakoa? Itzulpen aitortua izan edo izan gabe. Ezinbestekoa da hala jardutea? Zer eragin du horrek euskal hiztunon komunitatearen praktikan?

Zure ustez, zein da debate honen edo polemikaren funtsa?

Badira kontuan hartzeko elementuak: Akademiaren, Euskaltzaindiaren papera –gero eta bizkorrago sortzen eta aldatzen diren hiztunon beharrei erantzuteko gaitasuna–, bai eta guk euskaldunok, oro har, dugun hizkuntza gaitasuna, euskaraz, eta beste hizkuntzetan. Batxilergora arte ikasketak euskaraz egin dituen gazte batek hobeto ulertzen eta idazten du euskaraz beste ezein hizkuntzatan baino?, beti?, zeren arabera?, eta hala ez bada, zergatik ez, logikak hori eskatzen duen arren? Etab. Debate eta polemikarako gaiak ez dira falta. ■

Zibersegurtasunik ezaren arriskuak

Stefan Schuster
TECNALIA



Zibersegurtasun terminoak ziberespazioko segurtasuna izendatzen du. Ziberespazioa espazio birtuala da, Internetek eta sare global horretara konektaturiko milioika gailuk osatua.

Ia guztiok mugitzen gara egunero espazio horretan. Nork pentsatzen du bere segurtasunean, baina, telefono mugikorra pizten duenean, web orri batera sartzen denean, edota adiskide bati mezu elektroniko bat nahiz whatsapp bat bidaltzen dionean? Gutxi gara jarduera horiek egitean geure segurtasunaz kezkatzen garenak, baina izan ditzakeen ondorioek gure ongizate fisikoari ere eragin diezaiokete. Hori gehiegikeria dela uste duenarentzat, hona hemen zenbait arrasto.

Ziberespazioko segurtasuna aipatzen dugunean, lehenik eta behin datu elektronikoen eta datu horiek gordetzen, prozesatzen nahiz trukatzen dituzten sistema informatikoen segurtasunaz ari gara. Datu horiek publikoak izan daitezke, hala nola MP3 formatuko gure abesti gogokoena, film bat... Beste batzuk, ordea, pertsonalak dira, esaterako gure helbide elektronikoa, banketxeko gure kontuko pasahitza, zerga-datuak, mediku-historia eta areago gure hatzmarkak ere. Azken datu horien guztien isilpekotasuna gorde behar dela ulertzen da, pribatuak –edo sekretuak– direlako. Hori ez da sekulako albistea, senak dioena besterik ez da.

Orduan, azkenaldian zergatik hitz egiten da hainbeste zibersegurtasunaz? Egiaz, bi arrazoi daude gai horrek hedabide guztietan pizten duen interesa justifikatzeko: batetik, azken urteotan eraso zibernetikoak etengabe eta irmoki ari direla gorantz egiten, hala kopuruan nola eragindako kalteetan; eta, bestetik, Edward Snowdenek ezagutzera eman dituen informazioak. Izan ere, NSA segurtasun-agentzia estatu batuarraren enpresa azpikontratatu bateko enplegatu horrek bi gauza behintzat utzi ditu agerian, milaka dokumentu sailkatu jarioan argitara ateratzeaz batera: zer-nolako ahalmen teknikoak dituen zerbitzu sekretu horrek, eta ahalmenok mundu osoan milioika herritar zelatatzeko erabiltzen dituztela, oldeka eta bereizketarik egin gabe.

Informazio horiek hedabideetan argitaratu zirenetik, bistan da ziberespazioko aurkarien multzo ezagunera gehitu behar direla estatu-agentziak ere. Aurkari horiek guztiek –direla *sript-kiddies*ak edo jakintza tekniko handirik gabe software gaiztoa baliatzen duten gazteak; edo direla hacktibistak, beren ideia politikoak zabaltzeko *hacking* teknikak darabiltzatenak; edo direla banaka zein taldean antolatuak *hacker*rak; edo direla estatu-agentziak– arrazoiak dituzte ziberespazioan datuen segurtasuna bortxatzeko. Arrazoi horiek askotarikoak izan daitezke, hala nola, protagonismo-nahia, aktibismoa, diru-irabazien nahia, espioitza edo sabotajea.



Herritar arruntek ezagunago dituzte eskatu gabeko mezu elektronikoak, ingelesezko *spam* izenaz ere ezagunak. Kutsatutako ordenagailu-sareetatik edo zerbitzarietatik bidaltzen dira (*botnet* direlakoetatik), ekipamendu horien erabiltzaileak konturatu gabe. Onenean, helbide elektroniko bat baliozkoa den egiaztatzeko balio dute; baina amutzat ere erabiltzen dira, egiaztagiriak, bankuko datuak edo isilpeko beste edozein informazio-mota eskuratzeko.

Software gaiztoaren beste mota batzuk are kaltegarriagoak izan daitezke, hala nola, birusak, harrak edo troiarrak. Izan ere, gai dira datuak suntsitzeko, erabiltzaileak ordenagailuarekin dituen elkarrekintza guztiak (baita sakatutako teklak edota saguaren mugimenduak ere) «entzun» eta transmititzeko, edota erasotzaileari sistema kutsatua erabat kontrolpean hartzeko bidea ematen dioten «atzeko ateak» ezartzeko. Ildo berean, badira *rootkit* edo *APT* direlakoak (ingelesezko sigla, «mehatxu konplexu eta iraunkorra» esan nahi duena). Oro har, ekonomia-baliabide ugariko erakunde kriminalek edo estatu-agentziek erabiltzen dituzte, eta helburu bera dute, erasotzaileari sistema baten gaineko erabateko kontrola ematea. Gainera, sistemaren azterketa sakona egin ezean, ia ezin dira detektatu; eta azterketa sakona egitea ez dago edonoren esku.

«Ondo da», esango dute askok, «eta horrek zertan eragiten dit niri? Nik ez daukat datu interesgarririk eraso bat justifikatuko duenik; eta, nire sistema kutsatuko balitz ere, ez daukat ezer galtzekorik». Ziur zaude? Pentsa ezazu berriz...


Izan ere, birus informatiko batez (edota bestelako software gaizto batez) kutsatzea bizitza errealean kutsatzea bezain erraza edo are errazagoa da. Eraso-gainazal potentziala (hala deritzote adituek) sistema bat arriskuan jartzeko bidea ematen duten sargune posible guztien batura da. Eta eraso-gainazal hori oso handia da eta egunez egun hazten jarraitzen du. Internetera konektatutako edozein sistema edo gailuk erasogune potentzial bat edo gehiago dakar (direla enpresako ordenagailuak nahiz pertsonalak, ordenagailu eramangarriak, tabletak, telefono adimentsuak, gailu eramangarriak, edota direla sentsore klimatikoak). Internet infekzio-bide nagusia da, baina ez bakarra. Birus sofistikatu eta kaltegarrienetako batzuk, alabaina, erasandako sistemak Internetera konektatu gabe zeudela kutsatu ziren USB gailuen bidez, esate baterako.

Software gaiztoak edo datu-filtrazioak eragindako kalteak ezin konta ahalakoak dira: galera ekonomikoak, eskala handiko pribatutasun-galerak, azpiegitura kritikoen kolapsoa... Aholkularitza-enpresen zenbatespenetan kalkulatu da enpresa handi baten aurka arrakastaz egindako eraso baten batez besteko kostua 2.000.000 eurokoa dela, eta enpresa txiki edo ertain baten aurkako erasoarena, 430.000 eurokoa.

Adibidez, Estatu Batuetako langileria-administrazioko bulegoari oraintsu egindako eraso batean, 18 milioi enplegatu publikoren datu pertsonalak lapurtu zituzten, besteak beste haietako 5,6 milioiren hatz-markak. Horrek eragin handia izan zuen ekonomiaren eta irudiaren aldetik. Snowdenek filtratutako dokumentuetan oinarritutako informazioek baietsi dute NSAk susmopean ez zegoen jendearen datu-kopuru itzelak atzeman dituela, inolako bereizketarik gabe, Internet bidez eta telefono bidez izandako komunikazioetatik, gero, aztertu ondoren, ekintza terrorista nahiz kriminalak saihesteko. Natanzeko (Iran) gune nuklearrean uranioa aberasteko instalazioko zentrifugagailuak Stuxnet izeneko birusaren bidez suntsitu zituzten. Birusa NSAk eta israeldar zerbitzu sekretuek garatu zuten elkarrekin. Liburuak eta liburuak bete litezke antzeko adibideekin.

Behin hori guztia barneratutakoan, galdera hau sortzen da: nola babes dezakegu geure burua arrisku horietatik? Erantzunak bi alde ditu. Alde batean, ekintza erreaktiboak ditugu (erasoa gertatu eta gerokoak), segurtasunik gabeko sistemak eta protokoloak erabiltzearen arriskua moteltzeko diseinatuak; bestean, berriz, ekintza proaktiboak, hau da, software eta sistema diseinutik bertatik eta, berez, seguruagoak garatzeko asmoa dutenak. Oraingoz, eta diseinuaren bidezko segurtasunaren paradigman oinarritutako soluzioak eskuragarri ez dauden bitartean (geroago mintzatuko gara horietaz), ekintza erreaktiboei heldu beharrean gara.

Arlo pertsonalean, ekintza horiek oinarrizko segurtasun-jardunbideak dira, hala nola:



- Sarrera-pasahitz eta egiaztagiri sendoak eta sekretuak erabiltzea.
- Gure ekipoaren perimetroa suebakien, routerren eta antibirus-aplikazioen bidez babestea.
- Instalatutako software-aplikazioak aldian-aldian eguneratzea, azken segurtasun-adabakiak izan ditzaten.
- Segurtasun-kopiak maiz egitea.
- Eta zifratze-sistemak erabiltzea, datuak eta komunikazioak babesteko.

Ingurune korporatiboetan, aurreko horiez gainera, neurri osagarri hauek ere hartu behar dira:

- Sare korporatiboak segmentatzea, infekzio gurutzatuak saihesteko.
- Sarrera- eta irteera-trafikoa etengabe monitorizatzea, APTek edo bestelako mehatxu «ikusezin»ek eragindako jokabide susmagarriak antzeman ahal izateko.
- Autentifikazio- nahiz sarrera-arauak eta erantzukizunak definitzen dituzten segurtasun-politikak ezartzea.
- Arazoei erantzuteko eta oneratzeko sistemak ezartzea.

Izan ere, korporazio-inguruneetan informazio-sistemen segurtasuna hain ari dira negoziorako garrantzitsutzat hartzen, mundu osoko zibersegurtasuneko adituek gomendatzen baitute beste arlo korporatibo batzuen garrantzi-maila berarekin tratatzea, eta segurtasun informazioko zuzendari bat jartzea, zuzendari nagusiaren edo finantzetako zuzendariaren hierarkia- eta erantzukizun-maila berean.

Sistemen, sareen eta datuen segurtasuna handitzeko neurri proaktiboak, laburbilduta, *diseinuaren bidezko segurtasun-paradigma* delakoan biltzen dira. Ideia da, funtsean, segurtasun-betekizunak sorkuntzatik eta diseinutik bertatik alderdi garrantzitsuenetakoen artean kontuan hartzea, eta, gero, inplementazioaren eta proben bitartez gauzatzea, martxan jartzeraino eta sistemen nahiz softwarearen mantentze- eta deuseztatze-faseetaraino. Horrek, askotan, soluzioen erabilerraztasunaren eta erosotasunaren alderdiekin nolabaiteko konpromisoa bilatu beharra ekarriko du, gerta baitaiteke alderdi horiek murriztuta geratzea. Adibidetzat har daiteke, CDen edo USB memorien edukiari dagokionez, lehenespen gisa, automatikoki exekutatzearen aukera desgaitzea. Horrek software gaiztoa automatikoki instalatzea saihesten du; eta, era berean, edukiak exekutatzeko sagua gehiagotan sakatzera behartzen du erabiltzailea. Berdin gertatzen da gure mezu elektroniko guztiak enkriptatzen baditugu. Segurtasuna irabaziko dugu, baina gure postontzietan erraz bilatzeko aukera galduko dugu.

Hala ere, zibersegurtasuna ezin da neurri tekniko hutsez ezarri eta bermatu. Gure datuen osotasuna eta, horrenbestez, ziberespazioko gure pribatutasuna babesteko arau- eta lege-esparru egokia behar da.

Espainian, indarrean da Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa (LOPD). Europako lege aurreratuenetako bat da, duen irismenagatik eta datu pertsonalak tratatzeari buruz ezarri dituen murrizketengatik. Datuen segurtasunari dagokionez, ikus dezagun zer dioen 9. artikuluan: «beharrezko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartu behar dira, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, haien alterazioa, galera edota trataera nahiz sarbide baimengabea saihesteko». Eta, 33. artikuluan, datu pertsonalak hirugarren herrialdeetara transferitzearen kasua arautzen du. Hala ere, 33. artikuluko arauetan egindako salbuespenek (34. artikuluan zerrendatuak) garbi erakusten dute zer-nolako arazoak dauden Interneteko espazio birtual eta globala estatu-eremuko legeen bidez arautzeko. Egoera horrek eraginda, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak baliogabetu egin du Safe Harbour hitzarmena, datu pertsonalak Estatu Batuekin noiz-nola trukatu arautzen duena, eta, horrenbestez, atzera Batasuneko estatu bakoitzak erabaki beharko du, legedi nazionala erabiliz, legezkoa den edo ez datu pertsonalak Europar Erkidegoaz kanpoko herrialdeetara horrela transferitzea.

Zibersegurtasuna handitzeko ekimen tekniko, araugintzazko eta legegintzazko horiek guztiak gorabehera, ezin da ziberespazio %100 segururik bermatu. Bizitza errealean bezala, ez dago erabateko segurtasunik, harako hurbilketak baino ez, arriskuak murrizteko estrategiak aplikatuz lortuak. Askotan, arrisku hori gutxietsi egiten dugu, nahiz eta batzuetan geure bizia jar dezakeen arriskuan; adibidez, bizi-sistema medikoetan edo azpiegitura kritikoetan. Horrenbestez, ziberespazio honen erabiltzaile garen aldetik, gutako bakoitzaren esku ere badago eskueran ditugun jardunbideak eta teknologiak aplikatzea, geure datuen pribatutasuna galtzeko edo bortxatzeko arriskua neurri txikienera ekartzeko, eta, horrela, ziberespazioa guztientzat seguruagoxea izan dadin laguntzeko. ■

IZOn itzulpen-irizpideak bateratzen

Inaxio Lopez de Arana
Martin Rezola
IZOko kideak

IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak aspaldi ekin zion zerbitzu barruko itzultzaile-zuzentzaileen lana ahalik eta erarik koherenteenean gauzatzeko irizpideak biltzeari, ez baita nahikoa IZOren zigilua daramaten itzulpenak egokiak eta kalitatezkoak izatea, gutxieneko bateratasun-irizpide batzuk bete ere egin behar dituzte eta.

Itzulpen-irizpideak batzeko asmo horrekintxe sortu zen, IZO barruan, Itzulpen- eta berrikusketa-irizpideak bateratzeko lantaldea. Gaur egun, hilabetean behin-edo biltzen da, eta itzulpen arloan argitu eta bateratu behar diren gaiak ebazten ditu. Hartzen dituen erabakiak IZOn aplikatzeko dira: IZOko itzultzaileei eta zuzentzaileei eta IZOren itzulpen-enpresa hornitzaileei betetzeko gomendioa ematen zaie. Erabaki eta gomendio horietako batzuk bildu, eta txosten gisa aurkeztu ditugu, gure ingurukoentzat lagungarria izango delakoan. Esan beharrik ez dago guk bildu dugun materialak IZOtik kanpo ez duela inolako arau-izaerarik, ezta gutxiagorik ere; etxe barruko materiala da, beraz. Besteak beste, Euskaltzaindiak eta Terminologia Batzordeak dute arauak eta gomendioak emateko eskumena. Guk ez dugu haien mailan jarri nahi izan erabaki- edo gomendio-sorta hau gure ingurukoen esku utzita.

Edukiaz bezainbatean, zorionez, gero eta gehiago dira itzultzaile-zuzentzaileok eskura ditugun hiztegi arau-emaileak, espezializatuak, kontsultaguneak eta hizkuntzarekin zerikusia duten lan-tresnak. Hori dela eta, ez zaigu beharrezkoa iruditu han-hemen eskuragarri dauden eta jakinekotzat jo daitezkeen argibideak ematea. Baina oro ez da urre, ezta dena arau finko ere. Alegia, oraindik lan ugari dago egiteko administrazio-arloko euskara finkatzeko, eta itzultzaile-zuzentzaileok zalantza asko izaten ditugu gure eguneroko lanean. Premia horri erantzuteko, funts-funtsezkoa da itzulpen- eta zuzenketa-lanetarako irizpideak adostea, betetzea eta betearaztea.

Irizpideon helmena zedarritzea komeni da: Euskaltzaindiaren erabakiek beren esparrua dute, izenen ofizialtasunak berea, erakundeek ere zeinek bere eskumenak egikaritzen ditu… Horiek guztiak aintzat hartzen ahalegindu gara, nahiz eta jakitun izan irizpideak, izatez, behin-behinekoak direla eta halaxe izango direla beti, esan nahi baita etengabe eguneratu behar diren irizpideak direla. Kontuan hartu, baita ere, adostutako irizpideak IZOk 2015eko urrira arte hartutakoak direla. Harrezkero, irizpide eta erabaki gehiago hartu ditugu, eta aurrerantzean ere bide horretatik jarraitzeko asmoa dugu. Beraz, erabaki-sorta elikatzen jarraituko dugu, osatzen eta zuzentzen dugun bitartean.

Irizpideak lau talde handitan multzokatu ditugu: ortotipografia, morfosintaxia, testugintza eta terminologia. Irizpidebilduma osorik eskuratu nahi izanez gero, helbide honetan duzue: **http://www.ivap.euskadi.eus/albistea/2015/izoren-itzulpen-irizpideak/r61-vedizooo/eu/**

Segidan, lagin modura, irizpide edo erabaki horien adibide edo fitxa batzuk doazkizue, guk egindako lanari itxura hobeto har diezaiozuen. Fitxetan, eredu berbera erabili dugu beti: hasieran, gaiaren aurkezpen moduko bat agertzen da, normalean galdera bat, gaia aurkezten duena; gero, IZOren erabakia dator; eta bukatzeko, lauki batean sartuta, berriro erabakia, baina labur-labur emanda.

Artekoa ala –artekoa

Nola eman behar da euskaraz, esaterako, *interdepartamental, interinstitucional*… ezdakitzer artekoa ala ezdakitzer-artekoa? Bereiz nahiz batuta ikus dezakegu sarean (Euskaltermen ere bai): *sailen artekoa, sail artekoa, sailartekoa, erakundeen artekoa, erakunde artekoa, erakundeartekoa*…

IZOren erabakia

Hemendik aurrera batuta, hots, dena batera idaztea erabaki dugu: *sailartekoa, erakundeartekoa, instituzioartekoa* eta abar.

IZENA+ARTEKO dena segidan
sailen artekoa = sailartekoa
erakundeen artekoa = erakundeartekoa

Hitz elkartuetako marratxoa letra larriz idatzitako testuetan

Letra larriz idatzitako testuetan hitz elkartuetako marratxoa ipini behar da?

IZOren erabakia

Marratxoari dagokionez, letra larriz edo maiuskulaz idatzitako testuetan letra xehez edo minuskulaz idatzita baleude bezala jokatzea gomendatzen da, esaterako, honela:

HERRI-ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

baina,

Herri Administrazio eta Justizia Saila

Marratxoari dagokionez, letra larriz idatzitako testuetan letra xehez idatzita baleude bezala jokatzea gomendatzen da.

Jarraiki(z)

Nola esan behar dugu: *Irizpide horri jarraiki erabaki dugu* ala *Irizpide horri jarraikiz erabaki dugu*?

IZOren erabakia

Jarraikiz behar du. Izan ere, *poliki*, *arinki* eta gisa horretako moduzko adberbioekiko analogiaz hasi zen erabiltzen *jarraiki* gerundio moduan, eta gaur egun ere indar handia du erabilera oker horrek. Beraz:

Zuzen: *Ibaiari jarraikiz iritsi ziren portura*.

Oker: *Ibaiari jarraiki iritsi ziren portura*.

***Jarraikiz* edo *jarraituz* bai**
***Jarraiki* ez (partizipioa ez bada)**

Sin perjuicio

Nola esan beharko genuke euskaraz *sin perjuicio*?

IZOren erabakia

Orain arte sistematikoki *kaltetan joan gabe* eta *kalterik gabe* formula erabili izan dira; haien ordez, beste formula batzuk hobestea erabaki dugu, joskera eta esanahia ere argiago adierazten baitituzte; hala nola *galarazi gabe, ezertan galarazi gabe, alde batera utzi gabe, gorabehera, hala ere, nolanahi ere, ezertan eragotzi gabe, horrek ez du kentzen, hargatik eragotzi gabe, nahiz eta, arren, bada ere...* Zenbait kasutan, ordea, *kaltetan joan gabe* eta *kalterik gabe* formulak ere egokiak izan litezke.

***Kaltetan joan gabe* eta *kalterik gabe* formulak okerrak direnean, haien ordez honako hauek erabiltzea gomendatzen da: *galarazi gabe, ezertan galarazi gabe, alde batera utzi gabe, gorabehera, hala ere, nolanahi ere, ezertan eragotzi gabe, horrek ez du kentzen, hargatik eragotzi gabe, nahiz eta, arren* edo *bada ere*.**

Vasco/vasca

Nola eman euskaraz *Administración vasca*, *ley vasca*... eta horrelakoak gure testuetan?

IZOren erabakia

*Vasco/vasca*ren itzulpen zuzena eta automatikoa *euskal* da. Batzuetan, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoari soilik dagokion zerbait izendatzeko, *vasco/vasca* erabiltzen dugu; halakoetan, zalantza sortzen da euskaraz nola eman: *euskal* ala *EAEko*...

Euskal egokia da erreferentzia hiru lurralde historikoak ez badira (esaterako, *sociedad vasca*, *música vasca*, *idiosincrasia vasca*…); horrelakoetan, *euskal* erabil liteke, izen horiek sortu zituenak zer esan nahi ote duen pentsatu gabe.

Baina argi badago *vasco/vasca*ren erreferentzia hiru lurralde historikoak direla eta administrazio-egituraren barruko zerbaitez ari garela, *Euskal Autonomia Erkidegoa* nahiz *EAE* emango genuke euskaraz. Ildo horretatik, *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa* (edo *EAEko Administrazioa*), *Euskal Autonomia Erkidegoko legea* (edo *EAEko legea*) eta gisa horretakoak erabiliko genituzke. Hortaz, *País Vasco*rekin bezalaxe jokatuko genuke; alegia: *País Vasco*ren erreferentzia hiru lurralde historikoak direnean, alegia, eremu politiko-administratibo honetaz ari denean, *Euskal Autonomia Erkidegoa* nahiz *EAE* emango genuke euskaraz.


Hala ere, kontuan hartu badirela hiru lurralde historiko hauetako hainbat eta hainbat lege-testu eta erakunde, beren izenetan *euskal* dutenak; izendapen okerrak iruditu arren, errespetatu beharrekoak iruditzen zaizkigu.

1) *Vasco/vasca*ren erreferentzia hiru lurralde historikoak ez direnean: *Euskal*

2) *Vasco/vasca*ren erreferentzia hiru lurralde historikoak direnean eta administrazio-egituraren barruko zerbaitez ari garenean: *Euskal Autonomia Erkidegoa* nahiz *EAE*

2024





Mikel Ayllon

Betazalak kiskaltzerainoko beroa egin du berriro gau osoan. Oraindik ohetik altxatu gabe, izarak izugarrizko izerdi uherretan blai, akordatzeko ahalegina egin du Z-k. Baina bero-zapak eta lo eskasiak eragindako zorabioaren zurrunbiloan ez da gauza erraza akordura ezer ekartzea. Erraz izan liteke laurehungarren gaua segidan, eguzkiak alde eginda ere, sargoriak ez duela hanka egin nahi. Urtebetetik gora, seguru. Iazko udatik, gutxienez. 2020tik, zalantzarik gabe.

Jasanezina da, ez dago hori ukatzerik, baina Zri gehiegizkoa iruditzen zaizkio, inondik ere, urtaroak berregituratzeko han-hemenka gero eta ozenago entzuten diren ahotsak. Tira, ahotsak… dagoeneko oihu direla ere esan daiteke, kaleak berriro betetzen hasi baitira manifestari ernegatu eta izerditsuz, egun denak bero-zaparen oinpean igaroko baditugu, urteari uda deitzeko eskatuz, eta kito, akabo problemak horrela.

Egia esan, okerragoa eta amorragarriagoa zen lehen, jendea, trapu eta plastikoei helduta, beroaren aurka manifestatzen zenean, eltxo eta euli zikinez betetako kaleetan, eguraldi beti apetatsuaren kontra ezer egiterik balego bezala. Eskerrak denak suntsitzeko planak arrakasta izan zuen. Intsektuak, esan nahi da. Pertsonak zentzatu zirelako halako batean, eta, orain, sikiera, urtaroak berregituratzeko aldarri egingarriagoari heldu diote.

Dena dela, begiratzen zaion lekutik begiratzen zaiola, goizegi da horretarako, goizegi da urteari uda deitzeko, oraindik badelako esperantzarik, itzul litekeelako negua, bere begi zuri kristalezkoekin, bere elur izoztuko eskuekin, bere…

Telefonoak jo du, ustekabean, telefonoak beti jotzen baitu ustekabean, eta, jauzi trakets bat eginez, ohetik altxatu da Z. Belarri barruko bozgorailuan hartu du deia.

–Bai?

Min zorrotz bat sentitu du buruan, ezker lokiaren inguruan. Beroaren erruz izango dela otu zaio, baina ezin ukatuko du gehiegi edan zuela atzo.

–Ez, ama. Esan dizut ez naizela joango afaltzera. Nekatuta nago.

Komuneko armairuan aspirina baten bila ari da.

–Ama, ez hasi berriro, e? Ondotxo dakizu ez daukadala bikotekide bila hasteko astirik. Eta ez, bost axola urteko azken gaua izatea edo historiako azkena. Bost axola!! Eta utikan aita eta haren sineskeria guztiak! Gorroto dut gabon zahar gaua!

Urez goraino betetako edalontzian bota du aspirina, eta nola desegiten den begira geratu da, goraka ihesi doazen burbuilatxoetan kateatuta gogoa.

–Kito, ama. Bakarrik egon nahi dut gaur. Sikiera, gaur. Bihar joango naiz bazkaltzera-edo, lanak uzten badit.

Ia irakiten dago iturriko ura. Elektrizitatea huts egiten hasi denetik, asaldatuago eta zoratuago dago jendea. Aire egokiturik edo haizagailurik gabeko ordu luzeak gero eta luzeagoak dira, gero eta zabalagoak, gero eta bustiagoak. Hozkailuek oso tarteka baino ez dute funtzionatzen, eta ia batere potentziarik gabe. Dena ari da pixkanaka urtzen.

Pi labur bat entzun du Zk belarrian. Mezu bat da, Japoniako presidentearena. Logelako horma zurietako batean proiektatu du.

«Bikaina atzoko afaria. Euliak suntsitzeko bigarren plana ere arrakastatsua izango da, seguru ;-)»

Zk ez zion, noski, euliak suntsitzeko bigarren plana deitu nahi. Nork demontre irentsi behar zuen hori? Ez al ziren denak ohartzen dagoeneko ez zegoela eulirik? Eta, gainera, jendeari euli deitzearen kontu hori ere… Hori bai, ez dago beste erremediorik. Edo argiago: jadanik ez dago denontzako lekurik.

Ardoaren eflubioek bilera-gela goitik behera bete zutenean, Zri utzi zioten euliak akabatzeko gune nagusiak aukeratzen. Azken beltzean, bera zen presidente guztien arteko boteretsuena. Hiruzpalau eremu seinalatu zituen mapa zimurtu batean, eta beste bat seinalatzera derrigortu zuten, gutxienez «euli» populazioaren erdira iristeko. Gero, kopetatik irrist egin zion izerdi-tanta xukatu, eta kopa berriro ardoz betetzeko eskatu zuen.

Ate ondoko ispiluaren aurrean jarri da Z. Ilea nahasita dauka, baina aldaketan pilatutako haragiak eta bular erortzen hasiak dira amorru gehien ematen diotenak. Gona bat hartu du armairutik, edozein.

Danbateko gogor batez itxi du atea, eta bizkartzainak ohartarazi gabe, badoa kalera, Etxe Zuria atzean utzita, manifestarien oihu izerditsu eta likitsuen artean galtzera. Gaur, munduak ikasi beharko du bere burua bakarrik gobernatzen.

Eta bihar… bihar uda berri bat hasiko da, begiak irekiko dituzten euli zorigaiztokoentzat. ■

Euskarazko testamentu bat Arabako Durruma herrian[1]

Roberto González de Viñaspre
Pedro Uribarrena

1898ko abenduaren lehena zen. Arratsaldeko bostetan Manuela Ormazabal ohean zetzan, gaixorik, haren iloba eta Durrumako apaiza zen Buenaventura Ormazabalen etxean, azken borondatea testamentuan ematen hasi zenean. Horixe dio Agurainen egoitza zuen Adolfo Carrasco notarioak, idatzita utzi zuen protokoloan (Arabako Artxibo Historiko Probintziala, 24287 protokoloa, 223-226 folioak).[1]

Durruma herria Donemiliagako udalerrian dago, Aguraindik gertu. Han bizi zen Manuela Ormazabal, laurogeita bat urteko alarguna, iloba apaizarekin. Andrea ez zen jaiotzez Durrumakoa, gipuzkoarra baino, Seguran sortua: «domiciliada en este pueblo de San Román con cédula personal de oncena clase». Agiri hori NANaren aurrekoa da. Erroldatze-agiria zen jatorriz, eta funtsean errentaren gaineko zuzeneko zerga zen. Hamaikagarren tarifa mota errenta xumeenei aplikatzen zitzaien. Zerga-agiri hori indarrean egon zen 1854-1944 epealdian, harik eta Francoren gobernuak egungo NAN agiria 1944an sortu eta 1951n erabiltzen hasi arte[2].

Testamentua emateko orduan, gertatu zen notarioak ezin eman zezakeela Manuela Ormazabalen borondatearen fede, ezta lekukoek lekukotzarik ere. Batak eta besteek ez zekiten euskaraz eta, aldiz, testamentugilea euskaldun elebakarra zen. Hala jasotzen du notarioak idazkian: «no sabiendo hablar la otorgante el idioma castellano y sí el vascuence, que yo el notario desconozco, así como los testigos». Notarioa ez bezala, lekukoak Durrumako bizilagunak ziren, hirurak erdaldunak: Martín López de Arbina, Isidoro Gastaminza eta Narciso González de Galdeano. Izan ere, XIX. mendearen bukaerarako euskara desagertua zen Durruma inguruko eskualdean. Bestelakoa izango zen mende horren hasieran, zenbait lekukotasunen argitan. Esaterako, iparraldetik Durrumarekin mugakide den Albeiz herriari dagokiona. Ezaguna da Historiaren Akademiak 1802an argitaratutako hiztegi geografikoaren *Albeniz* sarreran dakarren datua: «… los vascongados legítimos de aquel pueblo quando les preguntan *Nongoa zara*?, responden *Albeizco, jauna*».

Manuela Ormazabalek gaztelaniaz ez zekienez, notarioak Kode Zibilaren 684. artikulua aplikatzea deliberatu zuen. Lege hori argitara emana zen 1889ko uztailaren 24an, Errege Dekretu bidez. Testamentugilearen hizkuntza ulertzen ez duenak ez duela lekukoa izaterik xedatzen du Kode Zibilaren 681. artikuluak, eta 684.ak ahalbidetzen du testamentugileak interpretaria baliatzea: «Agerkaria bi hizkuntzotan idatziko da, hizkuntza horietatik testamentugileak zein erabili duen adieraziz»[3].

[1] Juanjo Arnalek aurkitu du dokumentu hau Arabako Artxibo Historiko Probintzialean. Eskerrak ematen dizkiogu gure eskura jartzeagatik eta artikulu honetarako baliatu ahal izateko aukera emateagatik.

[2] Informazio gehiagorako, ikus Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren irakasle Martí Marínen "La gestación del Documento Nacional de Identidad: un proyecto de control totalitario para la España Franquista".

[3] Kode Zibilaren euskarazko itzulpena. Deustuko Unibertsitatea - IVAP

Kode Zibileko legegileen asmoa ez zen xedapen horrekin Manuela bezalako euskaldun elebakarrek testamentua euskaraz egin ahal izatea. Bestelakoa zen xedea: gaztelaniaz ez zekien atzerriko jendeak Espainian testamentua egin zezan ahalbidetzea: «Testamentu irekia eta testamentu itxiaren akta idatziko dira, bai testamentugileak erabilitako atzerriko hizkuntzan, bai notarioak erabilitako hizkuntza ofizialean, nahiz eta notarioak atzerriko hizkuntza hori jakin»[4]. Hala ere, Aguraingo notarioak 684. artikulua Durrumako kasurako ere erabiltzea erabaki zuen. Salbuespena da hau. Osterantzean, euskarazko testamentu gehiago izango genituzke Euskal Herriko beste notario batzuek antzeko interpretazioa egin izan balute, testamentugile euskaldun bakarren mesedetan. Zorigaitzez, ez zen horrela izan.

Kode Zibilak interpretari baten beharra aipatzen badu ere, bi aukeratu zituen Manuelak, eta notarioak biak onartu, «para que puedan traducir y traduzcan su última voluntad al idioma castellano»: Julian Elorza, Eginoko apaiza, eta Jose Migel Laskurain, Bikuñako apaiza, «los cuales manifiestan conocer y hablar bien el idioma vascuence». Lehenbizikoa idiazabaldarra zen, 29 urtekoa, eta bigarrena zegamarra, 39 urtekoa. Hala jaso zituzten bi interpretariek Manuela Ormazabalek esanak, zortzi puntutan, ondoren gaztelaniara itzultzeko. Osorik ematen dugu testua. Laburra da eta interesekoa gure iritzian euskararen historia sozialerako:

Primero. Declaratzen du Manuela Ormazabalec dala Domingo Ormazavalen alava eta Josefa Goiaren alava, ya illac.

Segundo: Declaratzen du lendabicico senarra izandu zuala Jose Maria Berasategui, ceña iltzan, eta ceñarequin izandu cituan iru seme, irutatic bi illac dira, ceñac ciran ezcongaiac eta etzuten izan aurric, irugarrena dago ezconduric, señac duan izena Andres Berasategui.

Tercero. Bigarren senarra izandu zuala Jose Maria Olea seña illa da, ceñarequin aurric etzuan izandu.

Cuarto. Declaratzen du beraren entierroa eguiteco bigarren clasean, gañera aguintzen du celebratzeco bere animaren sufragioan San Gregorion mezac, eta veste oguei meza, bacoitze amar errealecoa.

Quinto. Declaratzen du zor diola bere illoba apaizari Buenaventura Ormazaleri [sic] lau milla eta bosteun erreal bere alimentuagatic, medicu, botica, jantzi eta beste asistenciagatic, lau milla eta bosteun erreal oriec cobratzeco iltzen dan becin pronto bere interesatatic ematen diola poderea.

Sesto. Declaratzen du gañeraco sobratzen zayon interesac gozatzeco nombratzen duala bere seme Andres Berasategui y Ormazabal, heredero bacarra becela.

Sétimo. Declaratzen du nombratzen duala testamentario D. Buenaventura Ormazabal erri ontaco apaiz jauna, ceña dan San Romangoa, ceñari ematen dion facultadea cumplitzeco testamentu onec esaten duan gucia, eta gañera ematen dio poderea, erocin toquitan dauzquela; eta gañera ematen dio poderea particioe eguiteco bere interesetan eta gañera emateco bacoitzari tocatzen zaiona bere interesatatic.

Octavo. Declaratzen du ez duela balio len eguindaco testamentu guciac eta esaten du oaingoac bacarric balio duala.

Antza denez, Manuela Ormazabal onik irten zen ohean etzanarazia zuen eritasun hartatik. Handik lauzpabost urtera zendu zela dirudi, 1903ko otsail arte ez baitzuen haren oinordekoak testamentuaren kopiarik hartu. Hala irakurtzen da testamentuaren ertzean, Adolfo Carrasco notarioak idatzitako oharrean: «con esta fecha a instancia del heredero D. Andrés Berasategui di primera copia en cinco hojas de papel». ■


[4] Kode Zibilaren euskarazko itzulpena. Deustuko Unibertsitatea - IVAP

Hitz gezidunak



		Aberrizalea EH-ko **ibaia**		Neure Ez emea		Adiskidea Mugarri		Lehen bakoitia Gaztelako eskualdea		Bizkaieraz, azeria
		Erregu egin Itxura								
Musika tresna Garbizaleen kafea		Suak eragi-niko zauriak Arraza								
					Emakume izena Bokala				Bokal mehea Gipuzkoa-ko hiria	
Itxura Zerriak				Asiako penintsula Hosk						
					Kontso-nantea Joan hadi!		Argona Argi, hitz elkarketan			Norat atzizkia
Kasik Zintzo			Zikina Bromoa					H2O (erroa) Joan		
		Gorputza-ren adar Röntgen				Edari bizia Sufrea				
Harrera ona									Kontso-nantea	


Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Azaldua.
2. Adineko gizona.
3. Geurea.
4. Nahia.
5. Gurtzeko ekintza.
6. Diosal hitza.
7. Leuna eta biguna.
8. Inguratu aditzaren infinitiboa.
9. Itsasontzia lotzeko pieza.

SOLUZIOAK



Hitz gezidunak

Goitik behera

1. Agertua 2. Agurea 3. Gurea
4. Gura 5. Gur 6. Agur
7. Guria 8. Ingura 9. Aingura




IVAPen argitalpena:

Udal Gida
Guía Local 2015

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

zure etxean doan jaso nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

IVAP

Donostia-San Sebastián 1
01010 Vitoria-Gasteiz
administrazioaeuskaraz@ivap.eus

Abizenak _____ Izena _____

NAN/IFZ/ENA _____

Helbidea _____ Posta-kodea _____

Herria _____ Probintzia _____

Mugikorra _____ e-posta _____

Interesdunak ematen dituen datuak prozeduran edo ekintzan aurreikusten diren helburuetarako baino ez dira erabiliko, hau da, *Administrazioa Euskaraz* aldizkaria bidaltzeko eta horren harpidetzak kudeatzeko. Datu horiek, inolaz ere, ez zaizkie emango beste batzuei, interesdunak horretarako baimenik eman ez badu. 15/1999 Lege Organikoak ezartzen duena betez, datuak eman dituenak eskubidea du datuak noiznahi ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien aurka egiteko. Horretarako, eskutitz bat bidali beharko zaio IVAPeko zuzendariari honako helbide honetara: Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.